


ataria

2020-12-30 • 1.348. zenbakia
107.6 fm • www.ataria.eus



Aurreko urteen modukoa zen 2020. urtea, martxoaren erdian, COVID-19a herritar guztien bizitzetan sartu zen arte. Gelditu zuen mundua, eta baita Tolosaldea ere. Ia dena belztu du eta ia denean eragin du. Txarrerako izan da askotan, baina ale onik ere utzi du gizartean.

RAFA GORROTXATEGI



RAFA GORROTXATEGI-REN ERARA

Rafa Gorrotxategi, Gorrotxategi Familiaren hirugarren belaunaldia da. Bere haurtzarotik labeen eta gozogintza-tresnen artean bizi izan da. Rafa Gorrotxategi-ren etapa berri hau aurrera pausu handi bat da, bai kalitatean eta bai berrikuntzan. Produktu berriein harritu egingo gaitu eta uztartze berri hauekin, artisau gozogintza, goi-mailetarako gastronomiara eraman nahi du.



RAFA
GORROTXATEGI
1680

TOLOSAN SALGAI:
OBRADOREA: USABAL POLIGONOA, 14

943 89 03 06
www.rafagorrotxategi.eus

AURKIBIDEA

COVID-19a 6-10

Ekonomia 12-16

Kultura 18-22

Gizartea 24-27

Osasuna 28-30

Memoria historikoa 32-33

Feminismoa 34-37

Euskara 38-40

Historia 42-43


Gazteak 44

Politika 45

Ingurumena 46

Urtea iruditan 48-51

Kirolak 54-58



ataria

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 82€

ATARIAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

bai
erabaketa eta
lana euskara

3ikam
Kultura

ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **TELEFONOA:** 943 65 56 95
KOORDINATZAILEA: Rebeka Calvo Gonzalez **KUDEATZAILEA:** Iban Urdapilleta Alkizaletxe **BEZERO ARRETA:** 943 30 43 46
WEBGUNEA: ataria.eus **POSTA ELEKTRONIKOA:** ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 • 687 410 033 • 107.6 FM
PUBLIZITATEA: 661 678 818 • publi@ataria.eus

Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM:




Tolosaldeko gizarte eragileak

TOLOSALDEKO ATARIA diruz laguntzen duten erakundeak:

Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amasa-Villabona, Amezketza, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa eta Zizurkil.





Ibarrako Udala

San Bartolome, 2. • Ibarrako plaza

Tel.: 943 67 11 38

udala@ibarra.eus

www.ibarra.eus

Urte berriari begira

Azken hilabeteek eman dutena biltzen saiatu da TOLOSALDEKO ATARIA ondorengo orrietan. Ez da lan erraza izan, azken urtean lan egitea lan nekeza izan den bezala. ATARIA-ren leloak dioten bezala, *Egiten duzuna gara*, baina COVID-19ak ez die herritarrei nahi beste eta nahi eran egiten utzi, eta horrek guztion lana baldintzatu du. Horrek ez du esan nahi ordea, eskualdea geldi egon denik eta horren berri ematen arituko da eskualdeko komunikabidea.

Martxoaren 12a izan zen mugarri; gaitza gurean zegoela eta guztia hasi zen aldatzen. Harremanak izateko erak aldatu ziren, ekitaldiak burutzeko moduak, komunikatzeko ordura arteko ohiturak... Ekitaldiak bertan behera geratu ziren pixkana, ia desagertzeraino, eta asteak eman genituen etxean. Ez zen erraza izan, ez da erraza izaten ari, baina ari gara martxoaren 12a aurreko egoerara gerturatzen.

Pandemiak bertakoa kontsumitzeko garrantziaz ohartarazi ditu asko, kultura babestu beharraz, ondokoa zaindu behar dela utzi du agerian eta denak elkarrekin, taldean, bidea errazagoa dela erakutsi du.

Martxoa bitarte *normaltasuna* zen nagusi eta Tolosako Inauteriak egin, egin ziren, orain atzera begiratu eta gezurra dirudien arren. Martxoaren 8ko aldarriak ere COVID-19az salbu geratu ziren, baina ondorengo hilabeteetan ez da trikiti edo dultzaina doinurik egon kaleetan, festa guztiak geratu dira bertan behera.

Martxoaren 8ko aldarriekin batera, pentsiodunen eskaerak entzun dira ozen. Itxialdian bakarrik utzi zioten biltzeari eta behin bukatuta lehenengoak izan ziren kaleak hartzen. Ospitale publikoaren aferak ere aurrera egin du eta Asuncion klinikan egon diren gorabeherek eskualdea mobilizatu dute; pandemia bertean herritar ugari bildu zen Tolosan, ospitale publikoa eskatzeko.

Memoria historikoari lotutako albisteak ere izan dira nagusi eta 36ko gerra eta frankismoaren lehen aroari lotutako testigantzak gordetzeko lanean hasi dira Amezketan eta Altzon, iaz Alegian egin bezala.

Ez dira horiek urte honek utzi dituen albiste baka-rrak. Euskaraldia ere izan da. Bigarren ariketa sozialak aho zapore ona utzi du eskualdean eta zailtasunak zailtasun herritar askok egin dute bat ekimenarekin. Ezin gara erlaxatu, ehun urtean lehen aldiz, gaztelania baino euskara gehiago entzun da Tolosako kaleetan, baina lanean jarraitu behar da.

Haizea ere izan zen albiste, Orendainen kultur etxe-ko teilatua eraman zuen eta eskualdean kalte asko eragin zituen urriko denboraleak. Eta nola ahaztu pilotazaleen festarekin; buruz buruko finalean eskualdeko Jaka eta Altuna pilotari handiekin gozatu ahal izan genuen, eta berriz ere lau eta erdikoan.

COVID-19ak ez du mundua guztiz gelditu, ohiko abiadura moteldu du, egia da hori, eta horri etekina ateratzeko eta ikasteko baliatu beharko dugu. Urte berri on!



BERTAKOA ZEIN GLOBALA, HISTORIARA

Atzera egin eta azken hilabeteok Koronabirusaren aitzakian utzi dutena gogoratzea da ondorengo lerrootako zeregina.

Bi mila eta hogeia. Ezbairik gabe historia-ra pasako den urtea. Martxoa bitartean gure bizitzetan ezezagunak ziren hitzak eguneroko ogia bihurtuko ziren: COVID-19a, osasun larrialdia, neurri murriztaileak, PCRak, txertoa, konfinamendua, deseskalatzea, maskarak, gel hidroalkoholikoa, segurtasun neurriak...

Otsailean Txinara begira jarri ginen, Wuhanera, hain zuzen ere. Handik iritsi ziren koronabirusari buruzko lehen lerroburuak, baina Tolosaldeetik oso urrun ikusten zen, gurera inola ere iritsiko ez zena. ATARIA-k hala ere, Txinan egoera nondik nora bizitzen ari ziren ezagutu nahi eta Ane Aierbe tolosarra elkarrizketatu zuen: «Prebentzio neurri guztiak betetzen ari dira txinatarak». Gutxira ordea, egoera erabat aldatu zen Euskal

Herrian. Martxoaren 12an, jakinarazi baitzen gaitza gu-rean zegoela eta hamabost egunetarako ikastetxe guztiak itxeko agindua eman zuen Jaurilaritzak.

Ikastetxeak itxita, umeak etxera eta pandemiak agerian utziko zuen lerroetako bat agerian, lehen momentutik: kontziliazio eza. Oso urrun ikusten zen telelanaren eredia, une batetik bestera, ezarri behar izan zen enpresa askotan: lan jarduna, etxetik.

Martxoaren 12an bertan, errenkadan iritsi ziren ekitaldiak bertan behera uzteko deiak. Gerora, nahi baino ohikoagoan bihurtu zen *Bertan Behera* esapidea. 14ean horrela zioen Atariak: «Ostalaritza jarduerak bertan behera uzteko erabakia hartu du Jaurilaritzak».

ATARIA-ko jardunean lehen momentutik eragina izan zuen pandemiak. Lantaldeko hainbat kide, gomen-dioei jarraika, etxetik lanean hasi ziren martxoaren 13an bertan. Webgunearen etengabeko informazioari eta papereko emariari eutsi egin zion eskualdeko komunikabideak. Irrati uhinek ordea etena izan zuten.

Alarma egoera ezarrita, etxean giltzapetuta

Pedro Sanchez Espainiako Gobernuako presidentek



Konfinamenduan herriko dendatan hareagotu ziren erosketak. I.S.

martxoaren 13an iragarri zuen alarma egoera, eta hurrengo egunean taxutu zuten alarma egoera hori arautuko zuen dekretua. Honela, biztanleek mugatua izango zuten mugimendu askatasuna, ezinbestekoak baino ez ziren joan-etorrietarako.

Lehen histeria momentuak iritsiko ziren orduan supermerkatuetako ateetan. Hainbat produktu apaletatik faltan, erosleen karroak gainezka eta hornitzaileen lasaitasunerako mezuak. Esaterako, Villabonako farmaziako Juana Mari Sanchezek horrela eman zuen aditzera martxoaren 16an: «Gure bezeroei esaten diegu ez dela sendagaien hornikuntzarik faltako».

Etxean konfinatuta egonda, herritarrak konektatzeko, kultura sustatzeko edota kirol proposamenak zabaltzeko ekimenak hedatu ziren. Adibide bat baino ez da ibartarrentzat etxean jarduera fisikoa sustatzeko sortu zen plataforma.

Hezkuntza komunitatearentzat erronka

Eskola jarduera presentzialak bertan behera gertatzearekin, egoera berrira egokitzen joan behar izan ziren eskualdeko ikastetxeak. Hasiera batean, mar-

txoaren 30a bitarteko neurria izango zena, luzatzen eta luzatzen joan zen. Irakasle eta ikasleak plataforma digitalera ohitzen joan behar izan ziren.

Elkartasun keinuak hedatuz

Pandemiak zerbait positiboa ekarri badu, ezbairik gabe, boluntario sareak izan dira. Konfinamendua hasi eta lehen momentutik, adinekoei erosketak egin edota zaintza lanak egiteko prest zeuden boluntario taldeak antolatu ziren eskualdean barrena, herriz herri. Esaterako, Tolosaren kasuan, martxoaren 17an jada, 135 pertsonako taldea osaturik zuten.

Administrazioek ere euren zerbitzuak sekula ez bezala zabaltu behar izan zituzten. Adibidez, Tolosako Udalak bakarrik bizi ziren 70 urtetik gorakoei telefono deiak egin zizkien, euren egoera ezagutzeko. Apirilaren 9ko datua da 1.272 dei egin izana.

Adinekoen egoitzak

Martxoaren 19ko albistea zen Tolosako lurreamendi zahar egoitzan PCRan lehen positiboak antzeman ziztuztela. Orduan hasi zen Jaurilaritza herriz herri PCR probetako positibo kopuruen emaitzak zabaltzen. Euskal Herrian 1.679 gaixok eman zuten orduan positibo koronabirusaren proba eginda, eta eskualdeari erreparatuta 21eko datuarekin abiatu zen kontadorea.

Martxoaren 20an, koronabirusagatik heriotza baten berri eman zen eskualdean, Amezketako Udalak horrela konfirmatu zuen.

Lurreamendi egoitzak albisteak ematen jarraitu zuen martxoan zehar. 24ko albistea zen lurreamendi egoitzako 15 langilek positibo eman zutela, ELA sindikatuak jakinarazita. Martxoaren 31an Gipuzkoako Foru Aldundiak jakinarazi zuen zortzi pertsona hil zirela Gipuzkoako bost egoitzatan, tartean lurreamendin. Apirilaren 2an lurreamendin koronabirusagatik bost zirela bertako hildakoak. Apirilaren 4an lurreamendiko zortzigarren hildakoaren berri iritsi zen, Aldundiaren datuei erreparatuta. Hamarrera iritsi zen hildakoen zifra apirilaren 6an.

Zahar egoitzen auziari lotuta apirilaren 13an ELAk jakinarazi zuen GFA eta hiru zahar etxe auzitara eramango zituela, tartean Tolosako lurreamendi egoi-



tza. Langileen osasunerako eta bizitzarako eskubi-dea urratzea egotzi zieten. Egun horretan lurrea-mendik jakinarazi zuen bertako langile eta egoiliarrei PCR proba eta test azkarrak egingo zizkietela.

Nazioartetik laguntza eskaera

Martxoaren 19an, Maddi Amiano altzotarrak ATARIA-ra jo zuen laguntza eske, Indonesiako eskola batean irakasle lanetan ari zela, ezin etxera bueltatuta zegoen, eta enbaxadari laguntza eskatzen zion. Martxoaren 15ean, euren herrialdeetara «ahalik eta azkarren» itzultzeko agindua jaso baitzuten. Azkenik, Amianok martxoaren 23an etxeratzea lortu zuen.

Desinfekzio lanak

Kaleak hutsik eta espazio publikoak desinfektatzeko irudiak garai honetakoak dira. Martxoaren 26an, esaterako, Tolosako Udalak kale garbiketa zerbitzua indartu eta anbulatorio eta saltoki inguruak produktu desinfektatzaileekin garbitzera ekin zion. Beste adibide bat Amasa-Villabonakoa izan zen, udal brigada kale garbiketa eta desinfekzioan aritu zen 28an.

Etenda funtsezkoak ez diren jarduerak

Martxoaren 28an jakinarazi zuen Pedro Sanchez Es-

painiako presidenteak funtsezkoa ez zen jarduera oro etengo zuela. Neurria martxoaren 30ean indarrean jarri eta apirilaren 9ra bitarte luzatzea zen lehen asmoa. Enpresei bi egun utzi zitzaizkien egokitzeke.

Bertakoa, beste era batera

Azokak bertan behera bai? Baimendu bai? Polemikak izan ziren hasieratik. Azken batean, supermerkatu handiek bezainbesteko eskubidea zuten jarduerarako txikiek. Lanerako modu berriak ere egokitu behar izan zituzten. Esaterako, apirilaren 1eko albistea da Tolosako Azokako produktuak etxeraino banatzearena: *Azoka zure etxera* izena hartu zuen ekimenak.

Denda txikietatik albiste baikorrak ere iristen hasi ziren. Alegiako Aikur natur dendako Maider Elorzak jakitera ematen zuen bere dendan salmentak gora egin zuela, jendea herrian erosten hasi zelako.

Apirilaren 8an berriro baserritarren sindikatuak haserre azaldu ziren, Eusko Jaurlaritzak azokak debekatu zituelako: «Baserritarrok gure produktuak saltzetik bizi gara. Egoera dagoeneko zaila baldin bada, ulergaitza da beste oztopo bat jartzeko tema hori». Apirilaren 10ean azokak berriz irekitzeko eskatu zuten 61 eragilek. Amasa-Villabonak azoka mantentzearen aldeko apustua egin zuen apirilaren 11n. Apirilaren 14an,

Tolosako Udalak erabaki berdinarekin alde azaldu zen. Honela, apirilaren 18an, Tolosako Azokak kokagune berria izango zuen Zerkausiarekin batera: Beotibar pilotalekua. Maiatzaren 16an, Azoka Berdura plazara eta Euskal Herria plazara itzuli zen. Eta bertako komertzio txikietan erostearen aldeko kanpainak hasiko ziren. Villabonan: *Nik herrian erosten dut.*

Hamabost egunez hamabost eguneko Espainiako Gobernuaren luzapenak ohikoak egiten hasi zitzaizkien herritarrei. Apirilaren 4an luzapen berri bat iritsi zen, herritarrek 26ra bitarte etxeetan utziko zituen.

Haurren beharrak

Alarma egoera ezarri zenetik hilabetera ahotsak altxatzen hasi ziren haurren eskubideen alde, kalera atera ahal izateko eskaerak luzatuz. Alegian, esaterako, apirilaren 17an, danbor kazeroladara deitu zituzten herritarrek haurrak kalera ateratzeko eskatuz.

Hurrengo konfinamendu luzapena apirilaren 18koa da, alarma egoera maiatzaren 9ra bitarte luzatuz. Haurrak kalera ateratzeko baimena eskuratuko zuten, hilaren 26tik aurrera, babes neurriak hartuta.

Kirola irtenbide

Maiatzaren 2tik aurrera, Espainiako Gobernuak kalean ariketa fisikoa egiteko baimena emango zuen, goizean goiz edo iluntzean. Orduetegi franjak indarrean jarriko ziren orduan. Herrien biztanle kopuruak ere zeresana emango zuen orduan, 5.000 biztanletik gorako herriak izango baitzituzten orduetegi murrizketak. Adinekoek ere, data hori markatuko zuten egutegian, etxetik atera ahal izateko.

Deseskalatzea

Apirilaren 28an Pedro Sanchezek konfinamendutik ateratzeko planaren nondik norakoen berri eman zuen. Faseka zehazturik. Maiatzaren 4an, 0 fasea deiturikoa abiatuko zen. Denda eta negozio txikiek euren ateak zabaltzeko aukera izango zuten.

Maiatzaren 11n, lehen fasera igaroko zen eskualdea. Herritarrek hamar lagunekin elkartzeko aukera izango zuten; saltoki txikiak irekiko zituzten %30eko edukierarekin; udalek azokak egin zitzaizketen, salma-

haien erdiekin; terrazak ere mahaien erdiekin gehie-nez; eta hotelak irekiko zituzten.

Luzapenak luzapen, maiatzaren 12an berriro ere, alarma egoeraren luzapen eskariarekin esnatu zen gizartea. Pedro Sanchezen asmoa maiatzaren 24an amaitu beharreko alarma egoera luzatzea zen orduan.

Maiatzaren 18an, probintzia barruko muga desagertuko zen. Ordura arte norberaren udalerrria eta mugakidean baino ibiltzeko aukera ez zegoen baina aurrerantzean muga berria Gipuzkoa izango zen.

Maiatzaren 21etik aurrera sei urtetik aurrerako haurrek maskara derrigorrez jantzi beharko zuten kalera irteteko. Eta maiatzaren 25ean berriz, Hego Euskal Herria bigarren fasera igaroko zen. Ekainaren 8an, umeentzako lehen zerbitzuak bueltan, haur eskolek euren ateak ireki baitzituzten berriro, Hego Euskal Herria hirugarren fasean sartzearekin batera. Uztailaren 16tik aurrera maskara erabiltzea derrigorrezkoa izango zen.

Osasun profesionalen lana eskertuz

Amasa-Villabonako Udalak maiatzaren 12an, Erizainen Nazioarteko Eguna baliatuta, profesional hauen lana eskertzeko erabili nahi izan zuen. «Garai konplikatu hauetan» euren lana goraiatzeko ezinbesteko-tzat jo zuen Beatriz Unzué alkateak.

Udara begirako agenda etenda

Udarari begira lehen *Bertan behera*-k irakurriko genituen. Udako festen lehertzea bestelako izango zen 2020 honetan. Alkizak ekainaren 1ean jakinarazi zuen festarik ez zela izango. Errenkadan beste gut-tien jakinarazpenak iritsi ziren: Anoetako Korputz Jainik ez, San Joan jairik ez...

Beste zerbitzu batzuk aldiz gutxinaka normaltasun berrira bueltatuko ziren. Esaterako, ekainaren 15ean Usabalek eta Berazubik bere ateak berriro zabalduko zituzten. Asuncion klinikak maiatzaren 23an ohiko jarduerari ekin zion berriro. Zirkuituak eta protokoloak aldatuz, itzulera «segurtasun osoz» egiteko.

Kultur agendari begira, bueltako lehen hitzordue-tako bat Bertsozale elkarteak antolatutako bertso saioa izango zen, ekainaren 8an, segurtasun distantzia mantenduz, 80 pertsonentzako tokia ezarri.

Laguntza keinuak

Normaltasunera itzultze ezina askorentzat. COVID-19ak ondorio latzak utzi ditu ez bakarrik osasun arloan, baita arlo ekonomikoan ere. Honela, ekaina hasieran elikagai eta oinarritzko produktuen bilketa egin zuten Villabonan beharra dutenei laguntzeko.

Ikasturte amaiera, eskola zapaldu gabe

2019-2020 ikasturteak *aio* esango zien ikasleei. Ikasturte erdia egin moduan, *online* bidez izan beharko zen. Martxoaren 13az geroztik eskualdeko haur eta gaztek ez baitzituzten berriro ere ikasgelak zapalduko.

Agerraldi berriak

Askatasuna berreskuratu heinean komunikabideetan koronabirus agerraldiei buruzko albisteak hedatzen hasi ziren. Uztaila hasierako albisteak dira Ordiziako fokuari buruzkoak; hau Tolosalderaino hedatu eta agerraldia aztertzeke batzordean parte hartu zuen Tolosako Udalak. Honela, uztailaren 15ean, Tolosako Beotibar frontoian PCR proba masiboak egin hasiko ziren Tolosako taberna bateko bezeroei. 300 PCR proba egin zituzten lehen deialdian. Tolosari dagokionez, 0 kasua, Ordiziako proben ondorioz atzeman zela adierazi zuen Nekane Murgak, or-

duko Osasun sailburuak. Dispositibo berezia jarriko zen orduan martxan Tolosako kutsatzeak komunitarioak ote ziren jakiteko.

Uztailaren 16an bertan, Olatz Peon alkateak jakinarazi zuen kutsatze komunitariorik ez zela Tolosan egon. Beotibarren egindako 200 PCR probetatik positiborik ez zen antzeman. Hala ere, proba masiboak beste egun batez jarraituko zuen. Uztailaren 17ko le-
rroburua zen honakoa: «Beotibarren egindako 631 probetatik bakarrik eman du positibo». Beotibarko dispositibo berezia bertan behera geratu zen.

Aurrerantzean hala ere, ohikoak bihurtuko ziren taberna-jatetxeen denbora bateko itxierak langile-
ren batek PCR proba batean positibo eman izanak eraginda. Uztailaren 29an Eusko Jaurlaritzaren agin-
duz neurri murriztatzaileak ezarriko ziren: taberne-
k 01:30ean itxi beharko zuten eta edukiera neurriak
ere hartu beharko ziren ostalaritza gunetan.

Abuztuaren 12an adinekoentzat askatasun apurra iritsi zen. Adineko zentroetatik ateratzeko aukera eman baitzitzaizen egoiliarrei.

Abuztuaren 17an osasun larrialdi ezarri zuen berri-
ro ere Eusko Jaurlaritzak. Pertsonen topaketak ha-
marreko kopurura mugatuko zen orduan.

Ikaztegieta iraila hasieran PCRan positibo emai-
tzek gora egin zuten. Edonola ere, irailaren 7an, Ikaz-
tegieta Udalak lasaitasun mezua zapaldu nahi izan
zuen eta boluntario taldea berriro martxan jarri zuen.

Ikasturte berria, ikasgeletara buelta

Abuztuaren 28an ezarri zen hurrek eskolan maskara derrigorrez erabili beharko zutela, LH1etik aurrera.

Sei hilabetez ikasgelak zapaldu gabe egon ondo-
ren bueltarako momentua iritsiko zitzaizen. Irailaren
7an gehienak bueltatuko baziren ere, Amezketako
Zumadi eskolan astebetez atzeratu behar izan zuten
buelta, klaustrokide batek PCR proban positibo
eman eta irakasleagoa konfinatuta egon beharraga-
tik. Edonola ere, irailaren 7an, itzulera «lasaia» egin
zuten ikasleek eskualdeko ikasgeletara, «motxila
bizkarrean eta maskara ahoan». «Behar genuen», zi-
ren ikasle, irakasle eta gurasoek errepikatzen zituz-
ten hitzak.



Asuncioneko agerraldia

Urriaren 6an Asuncion klinikako profesionalen PCR probetako positiboekin esnatu zen eskualdea: «Lau dira Asuncion klinikan positibo eman duten profesio-nalak». Jarduera «normaltasunez» mantendu eta bisi-tak mugatzeko erabakia azaldu zuten klinikatik.

Urriaren 9ko albisteak bestelakoak ziren berriz: «Asuncion klinika konfinatu egin dute». Langileen arte-an positibo ugari antzemanda, bisitak eten eta ospita-lizazio berriak Bidasoa ospitalera bideratuko zituzten.

Hurrengo egunean, langileen positibo kopurua eza-gutzeroa eman zen: 22 langile eta bi gaixo. Gauzak ho-nela, osasun zerbitzua eten egin zen Asuncionen. To-losako Udalak lasaitasun mezua zabaldu bazuen ere, gainontzeko alderdi politikoak argibide eske azaldu ziren eta eskualdeko ospitale publikoaren beharra be-rriro ere agerian geratu zen. Urriaren 12an Asuncione-ko positibo kopuruak handitzen jarraitu zuen: 41 posi-tibo (35 langile eta 6 paziente). Jarduera kirurgikoa etetea erabakiko zen orduan.

Eta bitartean, eskualdeko positibo kopuruak ere gora jarraituko zuen. Adibide bat baino ez da urriaren 13ko datua: asteburuan 89 positibo berri antzemanda. Aurreko asteetan egunez egunekoak zifra bakarreko-ak zirela kontuan izanda.

Urriaren 19an Asuncion klinikak ohiko jarduna be-rreskuratuko zuen. Tartean baina, gizartea kalera ate-rako zen Asuncioneko konfinamendua zela-eta. 16an, osasun publikoaren aldeko manifestazioaren bezpe-
ran, Tolosako Udalak adierazi zuen «laster» bilduko zela Osasun Sailarekin ospitale publikoaz hitz egiteko.

Urriaren 17an, Tolosako kaleetan, antolatzaileen esa-netan 2.100 bat pertsona elkartu ziren manifestazioa egin eta eskualderako ospitale publikoa eskatzeko.

Neurri berriak

Kutsatzeak gutxitu ez eta Jaurilaritzak neurri berriak iragarri zituen urriaren 17an. Bigarren olatua deituri-koaren bete-betean, Espainiako Gobernuak, alarma egoera onartu zuen urriaren 25ean, sei hilabeterako luzatzeko asmoz. Etxeratzeko agindua indarrean sar-tuko zen orduan, 23:00etan. Herrien itxiera etorriko zen bueltan. Urriaren 26an jakinarazi zen Arabako,

Bizkaiko eta Gipuzkoako herri guztiak itxiko zituzte-la.

PCR proba masiboa

Orixeko institutuko DBH 1 eta 4 bitarteko ikasle zein ira-
kasle guztiei PCR probak egingo zizkieten azaroaren 2an. 400 bat pertsona pasako ziren probak egitera.

Ostalaritza berriro kalteturik

Azaroaren 7tik aurrera ostalaritza ixteko agindua eman zuen Eusko Jaurilaritzak. Asteburuan positibo kopurua, Osasun Sailaren arabera, 109koa izan zen. Azaroaren 21ean, manifestazio jendetsuak egin ziren tokiko ostalaritzaren alde, Villabonan eta Tolosan.

Baheketa, Amasa-Villabonan eta Zizurkilen

Bi herrietako 13 eta 40 urte arteko biztanleei PCR pro-bak egingo zitzaizkien azaroaren 13 eta 14an. Aurreko hamabost egunetan 100.000 biztanleko pilotutako intzidentzia tasa 1.540ekoa izan zen Villabonan eta 1.254koa Zizurkilen. Honela, herritarren parte hartzea %41ekoa izan zen eta 8 positibo utzi zituen baheke-tak.

Gorri kolorea atzean utzita

Abenduaren 1ean jakin zen Tolosako eta Villabonako osasun eremuak gorri koloretik laranja pasatu zirela, antzemandako PCR probetako positibo kopurua kon-tuan hartuta, 500etik beherako intzidentzia tasarekin.

Gabonei begira azken erabakiak

Eguberriak ate joka, mugikortasunari eta ostalaritzari lotutako neurriak malgutu dituzte Euskal Herrian. Abenduaren 12tik aurrera aurrera, baimenduta gera-tuko zen udalerrien arteko mugikortasuna, beti ere probintzia barruan, baina ospakizun egunetarako neurri bereziak ezarri dituzte.

Abenduaren 24, 25 eta 31n eta urtarrilaren 1, 5 eta 6an tabernak, jatetxeak nahiz dendak 18:00etarako ixteko agindua eman zuen Eusko Jaurilaritzak. Bestal-de, Urtezahar gauean eta Urteberri egunean familia bilkurak 10 laguneko muga izatetik 6 laguneko muga izatera pasatu dira.



ZAZPI HILABETEKO GREBA LUZEA

Urte zaila joan da eta ez dirudi lan arloari eta ekonomiari begira, hobeia datorrenik. Pandemiak gogor kolpatu du enplegua, baina aurretik ere baziren lan gatazkak. Tolosako Avia gasolindegian izan dute grebarik luzeena eta «akordio on» batekin amaitu zuten protestaldia.

Bukatzeaz den urte honek denbora luzean hizketagai izango diren gertakariak utzi ditu. Sektore eta arlo guztiak kolpatu ditu COVID-19ak, baina batez ere enpleguan eta lan baldintzetan izango du eragina, eta horrenbestez gizarteko eremu guztietan sumatuko da bere itzala. Langabezia igo da eskualdean, joera orokorrekin bat, eta horren adierazle iraileko langabezia datua; urtero izaten du beheranzko joera, udarako turismoari lotutako lan kontratuak direla eta, baina aurten goranzko joera izan du eskualdean.

Tolosaldean iraila bukaeran 2.257 langabe zeuden, martxo bukaeran baino gehiago: orduan 2.134 langabe zeuden (%9,27). Iazko irailean baino gehiago dira; 1.913 langabe zenbatu zituen SEPEk duela urte bete.

Pandemia baino lehen ere, baziren konpondu beharreko lan gatazkak, hala ere, eta eskualdeari dagokionez, Tolosako Arriaran-Avia gasolindegiko lanuzte eta protestaldia izan da hilabete gehien luzatu dena. Zazpi hilabete iraun zuen protestak, mobilizazio eta greba egunak, eta azken lau hilabeteak, otsailetik ekainera, greba mugagabea pasa zituzten,



Inauteriak balliatu zituzten Aviako langileek, euren egoeraren berri emateko. **L. C.**

gainera. Enpresa hitzarmenerako negoziatziorik ezak eta bi kaleratzek eraman zituen greba mugagabera. Izan ere, langileen ustez, 1.000 euroko soldatak ez zuen bat egiten gasolindegiko lan baldintzekin. Sei langile aritzen dira bertan lanean. «Soldata duinago bat nahi dugulako hasi gara protestan. 1.000 euroko soldata dugu, eta asteburu eta jai egunetan ere lan egin behar izaten dugu». ELA sindikatuaren arabera, ordainsari hori ez da nahikoa gaur egungo beharrei erantzuteko eta horregatik erabaki zuten protestaldiarekin hastea, baina harago ere joan ziren: enpresako itun propioa lortzea ere bazuten helburu.

Gorabehera askoren ondoren, Arriaran Avia gasolindegiko langileek enpresarekin «akordio on» bat lortu zutela iragarri zuten, eta boikota egiten ez jarraitzea ere eskatu zuten. Gasolindegiko arduradunaren jarrera ikusita, herritarrei boikota egiteko eskaera ere egin baitzieten. Ekainean «pixkanaka normaltasunerako itzulerari» ekin zioten. Eskerrak

emanez bukatu zuten borrokaldia, bereziki ELA sindikatuari, eta baita elkartasun mezuak eman zizkieten Tolosako Gazte Asanbladari eta Tolosaldeko Autodefentsa Laboraleko Sareari ere, besteak beste.

Oria galdarategia

Belauntzako Oria galdarategian, kontrara, egun gutxiren buruan bideratu zen gatazka. Lanik ez dagoe-la argudiatuz, kudeatzaileak urrian eman zien langileei enpresa ixteko asmoaren berri. 1945 urtean sortu zuten enpresa eta beraz, 70 urtetik gora eman ditu galdaragintza sektorean. Urri hasieran, baina, enpresa ixteko asmoa zuela jakinarazi zien bertako kudeatzaileak langileei. «Aurretik ere usaintzen genuen. Hala ere, kolpetik etorri zaigu albistea, eta hori ez genuen espero», esan zuten langileek. Lan karga txikia zela eta egon zitekeen lan kopururako lehiakorak ez zirela esan zien. Langileek, baina, bestelako ikuspegi bat zuten: «Interes faltagatik izan da. Beze-

roekin lanak atzeratu dira, ez da eskaintza berririk egin, eta askori ez zaie erantzunik eman. Lana bada-go; sektoreko enpresa gehienek lanean jarraitzen dute. Enpresa utzi nahi dute, besterik gabe». Horrez gain, erabakia egun batetik bestera hartu eta jakin-razi izana leporatu zioten langileek. Negoziaketak hasi ziren orduan eta hamabost egunen buruan bazkideek enpresa ixteko erabakia bere horretan mantendu bazuten ere, irteera baldintzak «nabarmen hobetu» ahal izan zituzten. Langileak «harro» daude lortutako akordioarekin, «irtenbide duina» lortu zutelako, «langileen borroka eta LABen ekintza sindikalari esker».

«Ezin dugu esan erabat pozik gaudenik, izan ere langile eta sindikatuaren lehentasuna Oria galdarategia zabalik eta orain arte bezala martxan mantentzea baitzen, aukerak ikusten zirelako eta borondategia zelako falta zena».

Siemens Gamesa

Asteasuko Siemens Gamesan ere izan dituzte greba egunak, lan ituna berritzeko prozesua dela eta. Martxoaren 9an greba mugagabea hasi zuten eta hilabetez luzatu zen. Apirilaren 20an itzuli ziren lanera, zuzendaritzarekin akordioa sinatu eta gero. Hilabete pasatxo eman zuten beraz, greba mugagabea eta Josu Zubillaga langileen ordezkariak eredugarritzat jo zuen denbora horretan egin zuten borroka: «Enpresa multinazional handia da gurea, oso handia, baina gure txikitik demostratu dugu integritatea dugula, inor kaltetu gabe merezi dugunaren alde egiten jakin dugula. Borroka honek erakutsi digu duintasuna dela gehien balio duena». Beraz, 100 langilek baino gehiagok urrats garrantzitsua egin zuten lan itun berria izateko bidean, eta COVID-19aren garaia baldintzatzen duen *normaltasunera* itzuliko ziren. Beharginek enplegu berme bat eskatu zuten, ikusita

Siemens Gamesako langileen elkarretaratze bat. **ATARIA**



taldean itxierak eta murrizketak zetoze, eta horregatik hasi zituzten lanuzteak. Enplegu berme horren inguruan akordioa zegoen aspaldian, baina lan hartzarmena berritzea zaila gertatu zen, eta ia hilabeteko greba mugagabearen ondoren iritsi zen ituna egitea erraztuko zuen akordioa.

Langileen ordezkariak esan bezala mundu mailako enpresa bat da Siemens Gamesa. Asteasun albiste onik izan dute 2020an, Siemens Gamesako Asteasuko lantegian turbinen osagai berriak ekoitziko baitituzte, hastear den urtean. Baina kontrara Nafarroako Agoizko Siemens Gamesaren lantegia itxiko duela iragarri zuten uztailan. Instituzioek eta sindikatuak esan zuten ahalegin guztiak egingo zituztela enpresak atzera egin eta fabrikak irekita jarraitzeko, baina enpresak ez zuen atzera egin. Asteasuko langileek elkarretaratzeak egin zituzten, Nafarroako lankideei elkartasuna adierazteko.

Voith Paper

Ibarrako Voith Paper enpresan ere martxoan sei greba egun egin zituzten. ELAk eta LABek salatu zuten enpresak gero eta azpikontrata eta ABLE gehiago erabiltzen zituela. Zuzendaritzak enpresa hitzarmena betetzea lortu nahi zuten. Protesta egunen ondotik, soldaten arteko aldea «txikitu» egin zen, nahiz eta aitortu zuten oraindik ere badagoela lana egiteko.

Zauritu eta hildako bana

Greba egun eta bestelako protestaldiez harago, izan dira bestelako ezbeharrak Tolosaldean.

Ekainean lan istripu larria izan zen Irurako Laskibar industrialdean. LAB eta ELA sindikatuak azaldu zutenenez, 45 urteko langile bat hil zen istripuz: «Plataforma bat pintatze lanetan zegoen langile autonomia 7 metroko altueratik erori zen». Heriotzaz gain, lan istripua ere egon zen Amezketa Aralar paper fabrian. Urtarrilean izan zen. Azpikontrataturako enpresa batean egiten zuen lan arin zauriturik suertatu zen langileak. Bost metrotik erori zen.

Agour Lizartzan

Izan dira lan munduari lotutako bestelako albisteak ere. Esaterako Heletako (Nafarroa Beherea) Agour taldeak gaztandegi berria ireki du Lizartzan (Gipuzkoa). Idiazabal jatorri izeneko gazta egiten dute Lizartzan, baina gazta urdin bat ere ekoitzi dute, ardi esnearekin egindakoa hori ere.

Eusko Labela du gazta horrek, Eusko Jaurlaritzak aurki aurkeztuko duen Gaztaberri egitasmoaren barruan baitago. Agourrek Eceizaren banaketa sarea eta 35 urtez Goenaga jogurt egile donostiarrekin landutakoa baliatzen du Lizartzako gaztak Hego Euskal Herrian eta Espainian banatzeko.

HASERREA ZAINZA SEKTOREAN

Zaintzako sektorean greba egunak izan dituzte. Azkenak azaroan. Zaintza profesionalen sektorea publikoa, duina, unibertsala eta doakoa izan dadila aldarrikatzen dute, eta nabarmentzen dute feminizatutako sektorea dela. Zaintzari lotutako lanpostuetan askotan, abusu eta esplotazio kasuak ematen direla ere salatzen dute. Zaintza sektorea publiko izatea eskatzen dute, izan ere, COVID-19az gain, sistema bera ere egoeraren erruduntzat jotzen dute: «Sistema hau ehunka hildako uzten ari da, lanera goazenean beldurrez goaz, izan ere, gu eta gure osasuna arrisku larrian jartzen ari garenaren jakitun gara». Lankidetzako publiko-pribatuak ezkutuan uzten dituenak ere salatu ditu: «Plantilla guztiz eskasak eta gizagabeak dauzkagu, egutegi gizagabeak, hilabete bukaerara iristea bermatzen ez diguten soldatak, baliabide materialetan eta babes neurrietan ez dute inbertitzen, arreta eskasa eta gizatasunik gabea ezkututzen da eta pribatizaziorako apustu sendoa egiten dute». Sistema aldaketa eskatu dute, «non esklabotzatik, klandestinitatetik edo prekarietatetik aterako dituen milaka emakume, gizarte osoaren zainketen pisua gure bizkarrean kargatzen dugun milaka emakume». Interes kapitalista eta alderdikoien aurrean blindatuta egongo den sistema «ezinbestekoa» dela ere badiote.

Tolosako Trianguloan egindako elkarretaraztea, 1.5.





URTEA GREBA OROKOR BATEKIN HASI ZEN

Eskualdeko enpresa eta denda txiki zein ostalaritza gehienak itxi zuen urtarrilaren 30ean. Greba orokorrerako deiak erantzun zabala jaso zuen beraz. Tolo-saldeko ostalaritza, denda eta enpresen %95ak greba egin zuen. Ostalaritzan nabaritu zen batez ere lanuztea, «inguruko ostalaritza eta komertzio txiki gehienak itxita daude, bakarren bat irekita dago, baina gehiengoak egin du bat greba orokorrarekin».

Euskal Herriko Eskubide Sozialen gutunak egin zuen greba orokorrerako deia. «Pentsio eta bizitza duinen aldekoa» izan zen greba, eta pentsiodunek azken bi urteetan egindako mobilizazioekin lotu zuten sindikatu eta beste talde deitzaileek. 2019ko urrian jakinarazi zuen Eskubide Sozialen Gutunak greba antolatu nahi zuela, baina ez zuen data zehaz-

tu. «Egungo egoera ikusita, erantzunak eta alternatibak hainbat sektoretatik bideratu dira; pentsiodunetatik, feminismotik, ekologismotik eta lan baldintzen aldeko borroketatik. Greba horiek guztiak gure grebak dira; denekin bat egiten dugu», esan zuten sindikatuek. Beraz, urtarrileko grebaren helburua izan zen borroka horiek guztiak batzea. «Bizitza erdigunean jarriko duen eredu bat» bultzatu nahi zuen gutunak mobilizazio horrekin, «zaintzari eta planetaren jasangarritasunari lehentasuna» emango diona. Eredu horren ardatzak izango liratekeenak ere zerrendatu zituzten: aberastasunaren birbanaketa, sektore publikoaren lidergoa eta eskubideen unibertsaltasuna. Era berean, Hego Euskal Herriko bi gobernuekin kritiko azaldu ziren deitzaileak, haien iritziz ez zirelako gai izan kontrako norabidean doazen Espainiako Gobernuaren neurrien bestelako politikak hartzeko. CCOO sindikatuak ez zuen bat egin grebarekin.



ORBINOX

JARIAKINEN KONTROLERAKO SISTEMAK

- Gillotina-balbulak
- Euste-balbulak
- Solidoekin osaturiko jariakinentzako balbula bereziak
- Damper-ak
- Balbulak eta konportak presa eta ur-obretarako



www.orbinox.com

ORBINOX S.A. Industrialdea, z/g - 20270 ANOETA - Tel.: + 34 943 69 80 30

LIBURU ETA DISKOEK ARGIA IKUSI DUTE

Kultura izan da 2020. urtean ostikada jaso duen esparruetako bat. Hala ere, sortzaile eta artista askok ez dute etsi eta lan berriak argitaratu dituzte, 2020ko uztaz gozatzeko aukera eskainiz.

Ez ohiko urtea joan da, eta kultura eta kultur sortzaileek eragina barru-barrutik bizitu dute. Eskualdeko sortzaileek, ordea, sortzen jarraitu dute, eta 2020ak uztaz oparao utzi du liburuei eta diskoei dagokionean.

Urtea hastearekin batera, Tolosako Udalak eta Alberto Luengo biologoak *Tolosako fauna: landa behaketa* liburua argitaratu zuten.

Martxoan, *Hik ez dakik zer den beldurra* narrazio bilduma kaleratu zuen Erein argitaletxearekin Karlos Linazasoro tolosarrak. Aldiz, bi urtez Bizkaiko D ereduko ikastetxe bateko ikasleei jarraipena egin ostean, Eider Saragueta ikerlari ibartarrak, hizkuntzaren inguruko tesi bat liburu bilakatu zuen: *Translanguaging hezkuntza eleanitzean. Ikerketa etnografiko bat*.

Apirilean, ikasgelan pilatutako ohartxoekin bilduma osatu, eta *Hezkuntzaren Soziologia* liburua kaleratu zuen Joxi Imaz Bengoetxeak. Igor Estankonak, Susa argitaletxearekin *Moskito* bosgarren poema liburua kaleratu zuen, azkenekoa argitaratu zuenetik hamai-ka urtera datorrena; besteak beste, nazioaz, aitatasunaz, bikoteaz eta heriotzaz.

Maiatza hastearekin batera, *Kutsaldian* liburua itzuli zuen euskarara Xabier Olarra itzultzaile tolosarrak,

Fernando Reyrekin batera eta Erein argitaletxeak plazaratu du. Juan Kruz Igerabide adunarrak *Noiz arte arrazoi* liburua idatzi zuen. Umoretsu, baina aldi berean eztena sartuz zenbait gaietan eta gogoeta sako-
nak iradokiz ageri da aforismoetan. Alberdania etxearekin kaleratutako liburuan, Koldobika Jauregi alkizar-
rak bere ekarpena egin du azala eta liburu barruan dauden irudiak osatuz.

Ekainak geologian murgiltzeko aukera ekarri zuen. Amezketako San Martin atsedeen-lekuan aurkeztutako proiektuen artean aurkitzen da, Asier Hilario tolosar geologoak egindako *Geodibertsitatea, gure lurraldearen memoria ezkutua* liburua.

San Ferminen bueltan, Josu Ozaita Azpiroz antropologoak *Sanferminetako azken erritua: Villavesaren entzierroa* liburua argitaratu zuen.

Irailean, *Bidea Ipar* liburuak ikusi zuen argia Tolosan. Iker Karrera amezketarra protagonista duen eta Unai Ugartemendia kazetari eta idazleak idatzitako liburua da. Ibarraren eta piperraren arteko harremanari buruzko liburu bat egin du Josu Ozaita antropologoak: *Piparra*. Ekoizleekin, herritarrekin, biltzaileekin eta abarrekin hitz eginda.

Hausnarketa pertsonaletik abiatutako proiektua



egin du Mikel Chamizok. *Under Lockdown* konfinamenduari buruz idatzitako hamaika piezek osatzen duten liburuxka da. Inoiz ikusi gabeko partiturak dira, marrazkiekin apainduta daudelako, baita inoiz bezala egindakoak ere, pianorik ukitu gabe idatziak direlako.

Aforismoa literatura-genero egokiena dela dio Karlos Linazasorok. Hala, gisa horretako bere bosgarren liburua argitaratu zuen idazle tolosarrak, azaroan: *Buzón de sugerencias*. Bere liburu guztiak bezala, euskaraz idatzi zuen lehenik, argitaratu ahal izateko, baina, gaztelaniara itzuli behar izan zuen eleberria.

Haurrei zuzendutako *Gau beltza* ipuina argitaratu du Ozaita antropologoak Txalaparta argitaletxearekin; gau beltzaren eta hemengo ohituren inguruko informazioa haurrei gerturatu nahi izan die horrela. Alberto Luengo tolosarrak, esaterako, Mongolian eta Txinan barrena egindako bidaietako bizipenak, ikusiak eta ikasiak auto-editatu ditu *De gentes, animales y otras yerbas*, *Crónica de un viaje por China y Mongolia* liburuan. Bernardo Atxaga asteasuarrak, berriz, *Euskadi Irratiko Faktoria* magazinean irakurritako 115 artikulua bildu ditu *Kilker bat autopistan* liburuan. Eta Yurre Ugartek zortzi narrazio bildu ditu *Lilurabera* liburuan. Emakumeak dira protagonista istorio ia guztietan; sorkuntza ogibide duten pertsonak.

Urteko azken hilabetea ere oparoa izan da. Anoeta-

ko Burdin Aroko Basagain herrixkan azken 20 urteotan egin diren aurkikuntzak bilduz liburua argitaratu du Aranzadi zientzia elkarteak. Oskia Karrerak *Bertsoak argazkitan* izeneko bere hirugarren liburua argitaratu du; 75 bertso zahar eta berri bildu ditu, bakoitza bere argazkiarekin. Iñaki Zubeldia idazle ikaztegiarrek *Siberiako neskatila ausarta* haurrentzako liburua argitaratu du, eta bukatzeko, Garbiñe Ubedak, *Esanezinak* liburua argitaratu du, *Lekukoa* trilogiaren azken liburua.

Musika berria

Tenpora. *Berriro asma nazazu.*
Hilotz. *Aske.*

La Topadora. *Voy Con Todo.*
Sin Mala intención. *Cuando llueve demasiado.*

Habi. *Koloreak.*

Inor Navarro. *Aversion.*

Iñar Sastre eta Jagoba

Astiazaran. *Ariñeketan.*

Iker Piris. *Solo.*

Alos Quartet. *20 urte zuzenean.*

Goenagaren atzera begirakoa

Alkizan bizi den Juan Luis Goenaga artistaren atzera begirako erakusketa zabaldu zuten irailean, Donostiako Kubo-Kutxa aretoan. Sei gune tematikotan dago antolatuta erakusketa eta elkarren segidan daude lanak, egilearen irakurketa kronologikoa eta bere obraren garapena ikusi ahal izateko. Azken 50 urteetan egindako margolanak bildu eta antolatu ditu Mikel Lertxundi Galiana komisarioak. Guztira 128 lan dira.

Donostian jaio zen Juan Luis Goenaga, eta haurtzaroko eta nerabezaroko olio pinturetan dagoeneko antzematen zitzaien joera espresionista. 60ko hamarkadan bere sorkuntza lana euskal errealitate existentzialarekin errotzeko ahalegina egin zuen eta Alkizako Otsamendi etxean hartu zuen bizilekua. Hernio-Gazumeko parajeetan barrena ibili, naturan esku hartu eta argazkiak ateratzen zituen egunez, eta gauez saiatzen zen ikusitako horrek eragindako sentsazioak pintura eta marrazkiaren bitartez esplikatzeko.

AIZTONDOKO DANTZARIEN ARTEAN POSTU ONAK LORTU DITUZTE

Maitane Irurtzun adunarra eta Gorka Duran billabonarra hirugarren izan ziren urrian Seguran jokatu zen Euskal Herriko Dantza Txapelketan. Amasa-Villabonako Maddi Davilak Gazteen Mailako II. Aurre

resku Txapelketa irabazi zuen, Erreterian, abenduaren 7an, eta aldiz, Beñat Beobide asteasuarrak abenduaren 13an irabazi zuen Legazpin jokatu zen Gazte Mailako Aurreku Txapelketa Nagusia, 2005ean eta 2006an jaiotakoen D kategorian.

UNZURRUNZAGA ETA ANDRES, SORMENAREN KABIAN

Alkizako Udalak antolatzen duen artistei begirako Sormenaren Kabia beka, aurtan, Idoia Unzurrunzaga Llach argazkilaria eta Maria Andres Sanz dantzariak irabazi dute. Beka astebetez luzatuta, iraila eta azaroa bitartean Alkizan izan dira euren proiektua burutzeko, eta Unai Sorarrain bi-deogile alkizarra bidelagun izan dute. Abenduan jendaurrean aurkeztu zuten beren egonaldian egin duten lana.





BERTSOAK ETA BERTSOAREN BUELTAKO EK UTZI DUTE ARRASTOA

Harituz Tolosaldeko Bertsozaleen Elkarguneak Konfinamendua arintzeko bertso txapelketaren jarri zuen martxan, eta apirilean Beñat Mateos Zeberio asteasuarrak irabazi zuen

umeen mailako txapelketa eta Ane Zubia Arnalde ibarratarak, berriz, helduen mailakoa.

Ane Zubiak lehen aldiz parte hartu du Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketan. Ibartarra finalean kantatzera iritsi zen urrian.

XXXVI. Basarri Bertsopaper Sariko txapela jantzi du aurten Haritz Mujika bertsolari asteasuarrak.

Beñat Mateos, Aner Peritz eta Oihana Aranak irabazi dute VII. Pello Mari Otaño bertso-paper lehiaketa. Geleren arteko mailako saria, berriz, Abaltzisketako herri eskolako ikasleentzat izan zen. Bigarren postuak hurrenez hurren: Mara Albistur, Joar Garate, Ekaitz Goikoetxea eta Larraulgo eskolarentzat izan ziren.

Asteasuko Pello Errota Sariketan guztira Euskal Herri osoko hamabi bertsolarik parte hartu zuten aurten ospatu den bigarren edizioan. Amaia Iturriotz, Erika Lagoma, Iñigo Izagirre, Izarne Zelaia, Jon Martin eta Unai Mendizabal zizurkildarra aritu ziren finalean. Amaia Iturriotzek lortu zuen txapela janztea



TITIRIJAI ETA ABESBATZA JAIALDIEI EUTSIZ

Modu ezberdinean bada ere, Tolosako kultur eskaintza izan dira txotxongiloak eta abesbatza kontzertuak.

Aurtengoa, Titirijai txotxongilo jaialdiaren 38. edizioa izango da. Bederatzi egunez, txotxongiloz, txotxongilolariz eta hurrez beteak izan dira Tolosako kaleak nahiz Topic zentroa. «Urte korapilatua izaten ari da, guztia hankaz gora jarri zaigu, baina hemen gaude, pozik, jaialdi eder hau martxan jartzeko gogoz», adierazi zuen Aitor Imaz Tolosako Ekinbide Etxeko lehendakari izendatu berriak. Uztailean hartu zuen kargu berria.

Tolosako Abesbatza Lehiaketa bertan behera geratu bazen ere, egitarau murriztua prestatu zuten abenduaren 8tik 19ra bitarte gauzatzeko. Kontzertu guztiak San Frantzisko elizan izan ziren, eta entzuleek gonbidapenarekin bakarrik sartu ahal izan zuten.

Egoerak bermatuz gero, aurten egin ezin izan diren kontzertuak datorren urtean egitea da antolatzaileen asmoa.



1915. urteko argazkia

Baliarraingo Udalak eskatuta margotu zuten, abuztuan, Aitor eta Nextor Otaño aita-seeek 1915. urteko herriko argazkia. Pilotalekuaren atzealdeko paretetako batean dago Nexgraфф sinadurapean. lazko urte amaieran herrian eginiko parte hartze prozesuan ateratako eskariari tiraka hartu du gorputza muralak.

Maite Gurrutxaga Compos-tela Sarieten finalista

Mundu mailako Compostela Sarien lehiaketan finalista izan da Maite Gurrutxaga amezketarra. 400 lanetik gora aurkeztu ziren, eta irabazlea Pietro Gottuso italiarra izan zen *Desde 1880* album ilustratuarekin, eta atzetik, amezketarraren *Bola* albuma izan zen aipamen berezia jaso zuena.

Garazi Esnaola lizartzarra Musikari elkartean

Musikari elkarteko gidaritza zazpi emakume musikarik hartu dute, eta tartean da Garazi Esnaola lizartzarra. Musikarien jarduna duintzera bidean egingo du lan, eta musikariak elkartzeaz eta haien ongizatea aurkitzeaz arduratuko dira.

25 urte bete ditu Alurr dantza taldeak

25. urteurrena ospatzeko ekitaldiak prestatzen hasiak ziren Ibarrako Alurr dantza taldeko kideak urtea hasterako. Ekitaldi bereziena ekainaren 5ean egitekoak ziren. Oraingo dantzarietaz gain, taldeko kide ohiak oholtza gainean biltzeko asmoa zuten. Maiatzean urteurreneko abestia aurkeztu zuten.

Dionisio Mujika antolatzaile eta gai-jartzailea hil da

Nahiz eta Asteasun jaio zen Dionisio Mujika Arrue, Lesakan bizi zen 1960ko hamarkadatik, eta hango bertso munduan egin zen ezagun, eta batez ere, antolatzaile gisara. 84 urte zituela hil zen azaroaren 3an.



Grina, ahalegina eta ardura

Lanbidearekiko errespetua ogigintzan eta gozogintzan

Egunez egun gauzak hobeto egiteko gogo

Aparteko lehengaiak; gure premisa

Berrikuntza eta sormena funtsezkoak



FESTARI NEURRIA JARRI BEHAR

Festa eta parrandarako aukera askorik ez du utzi aurtengo urteak; inauteriak izan dira, bere osotasunean, urteroko moduan ospatu ahal izan diren bakarrak; gainerako festak ere egin dira, neurri txikiagoan eta parrandarik gabe, ordea. Festari ere neurria jarri behar izan zaio.

Inauteriak izan dira taxuz ospatu diren festa bakarrak urte osoan zehar. Taxuz edo, segurtasun distantziari zein edukierari jaramonik egin gabe behintzat eta musukoa eraman beharrik gabe. Mozorroetan, ordea, bazen.

Otsailaren 20a zen txupinazoa lehertu zenean, eta gerora, hilabete eskasera, etorriko zenaren arrastorik gabe ospatu ziren inauteriak. Zaldunitan bertan, ordea, izan zen koronabirusaz mozorrotu zenik. Txinako Wuhan hiriko herritarrez bat baino gehiago mozorrotu zen, eta egun batzuk geroago, mozorrotu beharrik gabe jantzi behar izango zuten trajea haiek ere.

Egun alaiak izan ziren, giro paregabekoak. Kezka bakarra, besterik gabe, sei egunetan festaz gozatu

ahal izatea zen, eta lan horretan eguraldiak ere hainbestean lagundu zuen.

Urtero bezala, Zaldunitatik Asteartitara bitarte, hor-txe izan zen ATARIA IRRATIA, San Frantzisko pasealekuan, zuzeneko emisioak egiten. Eta inauteriak amaitu berritan, mozorro onenen lehiaketa egin zuen TOLosaldeko ATARIA-k Parte hartzaileek haien argazkiak bidali behar izan zituzten, eta ondoren, epaimahaiak aukeratu zuen mozorrorik onena: Maddi Goenagak jaso zuen, *Dama berdea* mozorroarengatik; Aldekoa landetxean bi pertsonarentzako gau bateko egonaldia irabazi zuen. Izan ziren, ordea, sari gehiago ere. *Ataria.eus*-eko erabiltzaileen saria Nerea Gangoitiak eraman zuen, *Sufragistak* mozorroarengatik eta parte



hartzaile guztien artean bi lagunentzako bi afari zozkatzu ziren. Azken sari horiek jaso zituztenak Aitziber Urrestarazu eta Izaskun Larrayoz izan ziren.

Gainerako festak, neurrira

Inauterien ondorenean ere egin dituzte festak han eta hemen, bai. Batzuek «ez festak» deitu diete, «normaltasunez» ospatu ezin izan direlako. Saiatu dira, ordea, herrietako festak beste formaturen batean antolatzaren, formatu txikiagoan, baina izan dira argi ikusi ez eta ospatu gabe geratu diren herriak ere.

Neurri guztiak aintzat hartuta aritu dira denak; eserita ikusi ahal izateko ekitaldiak antolatu dira gehienbat, sartu-irtenak eta segurtasun distantziak kontrolatuz. Dantza, kantu, bertso emanaldiak izan dira nagusi herrietako plazetan. Eguneko festak irabazi dio udan gauekoari. Eta udan ez ezik, Gabonetan ere neurriak mantenduz egin da festa, nola hala. Dagoeneko jakina da datorren urteko inauteriak ez direla ospatuko, ea bestelako festez gozatzeko aukerarik baden.



Guraizeak zorrotz sartu ditu aldundiak udaletan

Aldundiak apirilean hartu zuen erabakia Udalak Finantzatzeko Foru Funtsa %20an jaisteko; udalerrri txikienei eragin die horrek gehien, diru sarreren %60 inguru funtsa horretatik lortzen baitute

Gipuzkoako Foru Aldundiak Udalak Finantzatzeko Foru Funtsa %20-25 inguru gutxituko zuela erabaki zuen apirilean, krisiaren ondorioz zerga bilketan ematen ari zen jaitsieragatik. Urriko azken datuen arabera, ordea, %12,55 jaitsiko da. Bereziki udalerrri txikienei eragin die erabakiak, izan ere, diru sarreren %60 inguru funts horretatik lortzen dute.

Haserre jaso zuten berria eskualdeko udal gehienek, batez ere, guzti hau kudeatzeko aldundiak izandako jarreragatik. «Aldundiak ezin izango digu Foru Funtsen bitartez nahiko genukeen kantitatea eman, baina beste formula batzuk bilatu beharko lituzke», esan zuen Iñaki Irazabalbeitia Alkizako alkateak.

«Diru sarreren galera Foru Funtsetik harago joango da, eta hori hondamendia izan daiteke industrialderik ez dugun landa guneko herrientzat», gaineratu zuen.

Hobekuntza marjina izan dezaketen udalei eta izan ez dezaketenei ahalegin berdina eskatzea ez zaie egokia iruditu eskualdeko alkateei. «Herri bakoitzak bere egoera ekonomikoa du, eta hori ere kontuan izan beharko litzateke», esan zuen Bakarne Otegi Ikaztegietako alkateak. «Bakarka aztertu beharko lirateke udal bakoitzak dirua biltzeko dituen ahalmenak eta egiten dituen ahaleginak, diru sarrera desberdinak ditugulako», gehitu zuen Irazabalbeitiak. Hori horrela udalek gauzatzeko aurreikusita zituzten proiektuak berraztertu behar izan dituzte.

INTERNETA BEDAIORA IRISTEKO PAUSOAK

Banda zabal bidezko Internet zerbitzua ez duten Bedaioko baserrietara zerbitzua hedatzeko diru laguntza lerro bat onartu zuen uztailan Tolosako Udalak. Laguntza horien bidez, Bedaioko bizilagunek gutxieneko kalitatezko baldintzak betetzen dituen Internet zerbitzua edukitzea bermatu nahi izan du udalak, eta hala, etxe bakoitzean instalatu behar diren azpiegituren kostuaren zati bat bere gain hartu du. 16.000 euroko laguntza lerroa sortu dute horretarako.

Udaletik adierazi zutenez, Bedaioko Internet sarearen gabeziak are nabarmenagoak izan dira COVID-19ak eragin duen osasun larrialdi eta itxialdi egoeran. Etxebizitza bakoitzeko jaso duten diru laguntzaren



gehieneko kopurua 400 eurokoa izan da, eta udalak soilik irratirako bidezko Internet zerbitzua erabili ahal izateko oinarritzko azpiegituraren instalazioaren kostua finantzatu du. Ez du bere gain hartu ez azpiegitura honen mantenurik, ezta Interneteko hornitzaileei ordaindu beharreko kuotarik.



MUBIL ENPRESAREN BEHIN-BEHINE- KO EGOITZA, TOLOSAN

Donostiako Eskuzaitzeta
industriagunera lekualdatu

aurretik, Tolosako Usabal industriagunean kokatu dute Mubil Gipuzkoako Elektromugikortasun Zentroaren behin-behineko egoitza. Urte amaierarako zuten aurreikusita irekiera.

«Lurraldearentzat albiste oso garrantzitsua» dela adierazi zuen Markel Olano Gipuzkoako diputatu nagusiak, irailean Tolosara egindako bisitan; «mugikortasun berrietan Gipuzkoa nazioarteko erreferente bihurtzea da proiektuaren helburua» gehitu zuen.

Etorkizuna Eraikiz programaren testuinguruan jaio zen Mubil, 2019ko apirilean. «Lan lerroetako bat Gipuzkoaren espezializazio adimentsua indartzea da. Lurraldearen etorkizuneko erronkak identifikatzen ari gara, biharko Gipuzkoa eraikitzeko», gogoratu zuen Olanok. Ane Insausti Mubileko zuzendariak, berriz, Mubilek «lau norabideko apustua» egiten duela adierazi zuen: «Azpiegitura teknologiko indartsua garatzea, ekintzailetasuna sustatzea, ezagutza sortu eta kudeatzea eta esperimentazioaren bitartez Gipuzkoa osoa laborategi erraldoi bihurtzea».

2.300 metro karratu ditu eraikinak, guztira. Beheko solairuan sarrera eta 90 metro karratuko *showroom* bat kokatu dituzte. Lehen solairuko 500 metro karratuetan bulegoak eta formakuntza gela. Azkenik, bigarren solairuan, 1.400 metro karratuetan, energia biltegitratzearen arloko laborategi aurreratua jarri dute, CIDETEC enpresak kudeatuko duena. «Europa mailan punta-puntako ekipamendua izango du, eta lurraldeko enpresa guztiek izango dute aukera bertan prototipo eta produktuen probak egiteko», adierazi zuen Olanok.

Zentroak aukera berriak sortuko dituela esan zuen Olatz Peon Tolosako alkateak: «Enpresen lehiakortasun eta nazioartekotzerako lagungarri izango da».

TOLOSAKO DENDA HISTORIKOEK JARRAIPENA IZAN DEZATEN

Merkataritza, ostalaritza
nahiz ostatuen sektorean,

EAEko negozioei jarraipena eman asmoz, Eusko Jaurlaritzak sortutako zerbitzua da *Berriz Enpresa* programa. Proiektu berri batean murgildu nahi dutenei negozioa erosten laguntzen die, eta era berean, merkatarikari batek duen negozioa saltzen ere laguntzen du zerbitzuak, hau da, eskualdatze prozesua arintzen laguntzen du.

Programa horren bidez eskualdatu da, esaterako, Ana y Elena Orus drogeria. 1908an sortu zen, eta familia bereko belaunaldi ezberdinek mende batez baino gehiagoz eraman dute aurrera negozioa. Irailaren 1az geroztik, Ana Rosa Tolosa eta Alicia Castillo tolosarrek dute dendaren ardura, eta orain Aliana du izena dendak.

«Negozioaren esentzia mantenduz» hasi direla lanean zehaztu zuen Amalur Angiozar, *Berriz Enpresa* programako arduradunak, lekualdatze aurkezpenetan. «Eskualdaketa bat ez da lizentzia baten aldaketa soilik, enpresa horren filosofia eta balioak mantentzea ezinbestekoa da. Kasu honetan, zerbaitegatik da denda berezia. Bezeroekin izan duen erlazio hori mantentzea beharrezkoa izango da».

Ez da Orus, ordea, programa horren bidez eskualdaketa egin duen Tolosako saltoki bakarra. Gabirondo zapata denda, Maite estetika zentroa, Eder Home denda edota MM arropa denda ere badira adibide.

Azken bost urteetan hamahiru izan dira Tolosan, tokiz mugitu gabe, jabe aldaketa izan duten saltokiak: Maite estetika zentroa, Hariak, Ortiz tapizeria, Coviran supermerkatua, Eder Home, MM arropa denda, Marylin arropa denda, Sorron, Zunzu poltsak eta osagarriak, Gabirondo zapata denda, Shanti Kirolak, Tasia jantzi denda eta Orus drogeria. Azkeneko hiru saltokiak aurtun eskualdatu dira.





OSPITALE PUBLIKOA, DENEN AHOTAN

Asuncion klinikaren ingurukoak albiste izan dira aurtan; lehen aldiz alderdi politiko guztiek eskatu dute eskualde mailako ospitale publikoa, eta kokalekuen inguruan ere hitz egin da. Pandemia betean positiboak eman ziren bertan, eta klinikako ohiko jarduna eten behar izan zuten.

Asuncion klinikaren aferak ez du etenik. Urteak dira albiste izaten dela. Azken urtean ordea, bira berri bat eman du gaiak eta jada alderdi politiko guztiek eskatzen dute eskualderako ospitale publikoa. EAJ alderdiak Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeen bezperan iragarri zuen «Tolosan, anbulatorioko espezialitate mediku eta kirurgia guztiak har ditzakeen ospitale berria eraikitzea» aurreikusten zutela, «izatera publikoa izango duena». Azaroan ideia hori berretsi zuen alderdiak eta Tolosako udal gobernuak «la-

saitasun mezua» helarazi nahi izan zuen, izan ere pandemia betean, urriaren 6an, agerraldi bat atzean zuten ospitalean eta alarma guztiak piztu zituen, klinikaren ohiko jarduna urriaren 19ra arte ez baitzen iritsi.

Agerraldiaren harira eskainitako lasaitasun mezua-ekin batera ospitale publikoaren aldeko konpromisoa berresten zuela esan zuen Olatz Peon Tolosako alkateak. Aurretik esana zuen kudeaketa publikoa izango duen ospitalea egitearen alde zegoela eta orduan iragarri zuen udala jada hasia zela ospitalerako



Manifestazio jendetsua egin zen ospitale publikoa eskatzeko. R.C.

kokapenak aztertzen «eta bilera bat egingo dugu laster honen harira Osasun sailarekin Eusko Jaurlaritzak ospitale publiko hori egin dezan bide orria zehazteko», esan zuen. Asuncionekeo agerraldia ez zuen kudeaketa ereduarekin lotu, dena den.

Testuinguru horretan kokatu behar da Tolosako kaleak jendez bete zituen manifestazioa. Pandemia betean egin zen eskualderako ospitale publikoa eskatzeko manifestazioa, urriaren 17an izan zen hori, eta bezperakoak ziren Olatz Peonen hitzak. Tolosalderako osasun zerbitzu publiko aldarrikatu zuten 2.100 bat herritarrek Tolosako kaleetan. «Osasun publiko da pertsonak erdigunean jarri eta kalitatezko zerbitzuak eskaintzeko berme bakarra», esan zuten. Agerraldia Tolosaldeko herritarren erreferentziazko ospitalean gertatu izana salatu zuten eta nabarmendu ez zela beste inongo ospitaletan gertatu. «Gaur

inoiz baino ozenago diogu: Asuncion klinikaren itxiera Tolosaldeko osasun zerbitzu eskasaren ondorio da. Administrazio publikoak Asuncion klinikarekiko duen esku hartze eta kontrol ezaren ondorio».

Osakidetzak bizi duen egoera urteetako murrizketen ondorio dela esan zuten eta pandemiak hori azaleratu zuela, «baina gurean egoera hori are eta lasgarriagoa da, Tolosaldean beste inon baino gehiago jolastu delako osasun zerbitzuaren pribatizazioarekin». Nahikoa dela esateko ordua dela esan zuten eta %100ean publiko izango den ospitalea eskatu zuten, «dagokion zerbitzu eta pertsonal ratioak izango dituen».

Tolosako alkatearen azken adierazpenen inguruan esan zuten «lehen bataila irabazi dugu, jada guztiok onartzen dugu, ospitale baten beharra». «Hau, guztion lanari esker izan da, TOPAk urteetan eginiko lanari esker. Argi dago borrokak fruituak ematen dituela», gaineratu zuten.

Tolosaldea Osasun Publikoaren Alde plataformaren beste eskaera bat ere ekarri zuten gogora: «Especialitatez hornitutako anbulatorioak nahi ditugu».

Kokapenak

Kokapenei buruz argibide gehiago ere eman zituen Tolosako Udalak. Esan zuen arkitekto estudio batekin batera ari dela aztertzen ospitalerako kokalekuak. Azterketa bi fasetan egingo dute; lehenik 12 kokaleku aztertu eta alderatuko dituzte eta ondoren, bizpahiru leku aukeratuko dituzte eta horien azterketa sakona egingo dute. Santa Lutzia auzoko lau lur zati, San Blas auzoa, Apatta industrialdeko bi lur zati, Usabal industrialdea, Olarrain auzoa, Iurramendi pasealekua, San Esteban auzoa edo Monteskie auzoa dira kokaleku posibleak.

Kokapenari lotuta eta eskualdeko osasun publikoaren egoerak kezkatuta kokaleku zehatz baten alde egin zuten eskualdeko 23 alkatek: ospitale publiko eraikitzeko leku posible bezala Apattako bigarren fasea proposatu zuten. Tolosaldeak 28 herri dituen arren, Tolosaldeko osasun eremua 31 herri osatzen




dute; hortaz, 31 horietatik 25ek sinatu zuten. Osasun eskualdeari dagokionean, Abaltzisketa, Belauntza, Berrobi, Larraul, Tolosa eta Andoaingo alkateak izan ziren akordioa sinatu ez zutenak. Kokalekuarekin batera Osasun Mahaia osatzeko beharraz ohartarazi zuten, eta Tolosako alkateari bertan parte hartzeko eskatu. Alkateek argi utzi zuten, ordea, Apattakoa proposamena baino ez zela: «Erabakiak guztion artean adostuak izan behar dute, eta benetako erabakigunea Tolosaldeko Osasun Mahaiak izan behar du».

Auzibideak

Kokaleku eta elkarriketez harago, Euskal Autonomia Erkidegoko fiskal nagusiaren auzia izan zen albiste martxoan. Fiskaltzak homologatu gabeko medikuak aritzen direla Asuncionen, eta horren inguruko ikerketa ireki zuen, baina ekainean auzia artxibatu zuen. Fiskaltzaren esanetan, ikerketa ondoren ez zen behar bezala justifikaturik geratu delitu baten gautzea. Homologatu gabeko medikuen intrusismo delitua ikertu zuen fiskaltzak. Euskadiko Fiskaltzarekin Asuncion klinikako bi langile ohi elkartu zirenean hasi ziren eskualdeko ospitalea ikertzen.

AMAROTZEN BOTIKINA ESKATZEKO MOBILIZAZIOAK EGIN DITUZTE

Tolosako Amarotz auzoan farmaziarik gabe geratu dira aurten eta horren ordez botikina jarri dezatela ari dira eskatzen. Era askotako mobilizazioak egin dituzte; manifestazioak, kotxe karabanak, agerraldiak... Hamabost egunean behin, modu ezberdineko aldarrikapenekin eskatu dute botikina beharrezkoa dutela auzoan. «Garrantzitsuena lortutako auzolana da, guztiok bat egin dugu helburu finko batekin: botikina lortzea, bai ala bai. Hori izan da mugitu gaituen leloa, berandu baino lehen botikina Amarotzen izango dela». Amarotz auzoko biztanleen %34 adinekoa dela gogoratu izan dute eta kilometroak egin behar dituztela gertuen dagoen farmaziara joateko. Auzotarrak Berazubi auzora joan behar dira farmaziara joateko. «Jaurlaritzak emandako ezezkoa distantzian soilik oinarritzen da, eta gure ustez hori ez da balizko argudioa. Dekretu baten arabera, distantzia neurriak bete ez arren, auzoan baldintza bereziak badira, posible da botikin bat zabaltzea», esan izan dute.



Goenaga® YOGUR



Pokopandegi Baserria · Igara
☎ 943 216 327
✉ goenaga@yogurgoenaga.com

🌐 yogurgoenaga.com
📷 [instagram.com/yogurgoenaga](https://www.instagram.com/yogurgoenaga)
📘 [facebook.com/yogurgoenaga](https://www.facebook.com/yogurgoenaga)



GERTATUTAKO- AREN «ERRA- DIOGRAFIA»

Altzon eta Amezketan 36ko gerra eta lehen frankismoaren inguruko ekarpenak ari dira jasotzen; Amasa-Villabonan 1960tik indarkeria politikoak eragindako urraketetan jarri dute azpimarra; eta Tolosan presoen sakabanaketak eragindako heriotzak aitortu dituzte

36ko gerraren eta lehen frankismoaren «erradiografia» egiteko urratsak eman ditu Aranzadi Elkartek azken urtean, Altzon eta Amezketan. Egia, justizia eta erreparazioa printzipioekin konpromiso irmoa dute aipatu udalek, eta beraz, Espainiako gerran eta lehen frankismoan, 1936tik 1945era, herrietan gertatutakoen inguruan ikerketa sakon bat egiteko proiektua jarri du martxan 2020an.

Karmen Murua Altzoko zinegotziak aipatu zuenez, «oroimenaren erradiografia zabala» egin nahi dute.

«Puzzlearen zati bakoitza, handia nahiz txikia, bere tokian jarri behar dugu». Udalaren ustez, herritarrek zer gertatu zen jakiteko eskubidea dute, errepresioa nola gauzatu zen, nork eta zergatik jasan zuten jakiteko eskubidea. «Euskaltzale izateagatik? Beste pentsamolde batekoa izateagatik? Galdera hauen erantzunak argitu nahi dira. Urte horietan hemengo bizimodua, frankismoa zer zen argi eta garbi azalduz, eskubide urraketa horiek jasan zituztenei egia aitortuz, justizia eginez, sufritutako minaren ordaina emanez», esan zuen Muruak.



Tolosan euskal presoan sakabanaketak eragindako hiru heriotzak izan zituzten gogoan. JA.

Amezketan ere gauza bera ari dira egiten. 36ko gerran eta lehen frankismoan, Amezketan gertatutakoaren inguruan, ikerketa «sakona» egiten ari direla esan zuen Iñaki Arandia zinegotziak. Aurrez Joxe Mari Otermin herritarrek egindako lan «itzela» gorai-patu zuten, era berean.

Indarkeria politikoa

Amasa-Villabonan 1960tik gaur egunera arte indarkeria politikoak eragindako giza eskubideen urraketen inguruko ikerketa da egiten ari direna, Aranzadi Zientzia Elkartearen bidez. Eta horretarako herritarren bizipenetara hurbildu nahi izan dute, herritarren testigantzak jasotzen aritu dira. Udalean dauden alderdi politiko guztiek aho batez onartu zuten Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren la-

guntza ekonomikoa duen ikerketa hori garatzea. 2016an sortu zen Memoria eta Bizikidetzatza Batzordea Amasa Villabonako Udalaren barruan, eta azken urteetan, udalak modu adostuan Euskal Herriko gatazka politikoaren barruan terrorismoak, motibazio politikoko indarkeriak eta gehiegikeria polizialek eragindako biktime guztiak aitortu izan dituztela esan zuen Unzué alkateak. Eta azken pausoa izan da herritarren bizipenak jasotzea: «Gure herrian izandako giza eskubideen urraketak ezagutu, argitaratu, aitortu eta ahal den neurrian erreparatzea eta herrian elkarbizitza demokratikoa normalizatzea dugu helburu».

Memoriaren Egunean eman zuen Amasa-Villabonako Udalak ikerketa horren berri, eta egun berean pauso garrantzitsua eman zen Tolosan. Udaleko alderdi politiko guztiek bat egin zuten, lehen aldiz, Memoriaren Egunarekin eta aipamen berezia egin zieten Tolosako presoak bisitatzea zihoazela, auto istripuz hildako hiru senitartekori. Euskal Herrian 16 pertsonen bizia galdu dute errepidean, tartean, Tolosako hiru herritarrek: Rosa Amezaga, Arantza Amezaga eta Leo Esteban, eta hiru herritar horiek izan zituzten gogoan.

Joxe Mari Villanueva (PSE-EE) eta Andu Martínez de Rituerto (EH Bildu) zinegotziak izan ziren Peonekin (EAJ-PNV) batera. Gizarteak azken urteetan jasandako indarkeriaren eta heriotzaren historia eza-gutzeko nahiz ez ahazteko eskatu zieten tolosar guztiei, eta batez ere, belaunaldi berriei. «Gure gertuko historiaren egutegian, gaurkoa da motibazio politikozko indarkeriak eragindako heriotzarik gertatu ez den egun gutxietako bat».

Lehen gudariaren heriotza

Mikel Alberdi, eraildako lehen gudaria, non hil zuten argitu da 2020an. Albizturren hil zuten eta ez Bidaninan, orain arte uste zen moduan. Karlos Almorza Historian doktorea eta Aranzadi Zientzia Elkarteko ikerlaria izan da ikerketa lana egin duena. Azken urteotan, lantalde batekin, Saseta Defentsa Sistema ikertzen aritu da eta lanak aurrera egin eta ikerketaren azken aurkikuntza izan zen hori.



JOSI ETA JOSI, SAREA OSATUZ

Nola martxoaren 8an, hala azaroaren 25ean, eskualdeko feministek kaleak hartu zituzten; Emakumeen Eguna mugarria izan da Tolosaldean, herri ezberdinetako emakume, kolektibo eta asanbladak elkar ezagutu eta elkar hartuta hasi baitira bide berean lanean.

Tolosaldeko mugimendu feminista askotarikoa da eta azkeneko urteetan ugaritu egin dira herriz herri emakume talde, kolektibo eta asanblada feministak. «Amalgama» aberatsa da eta elkarrekin komunitate feminista konprometitua osatzen dute. Horren adibide izan da Martxoaren 8a. Eguna horren bezperan, Tolosaldeko festa feminista egin zuten Anoetan, *Josi ta Josi* lelopean.

Eider Olazar Elduaien gazteluarrarentzat azkeneko bi urtean «ikaragarri» zabaldu da mugimendu feminista eskualdean. «Orain arte modu batean antolatu gara, baina hemendik aurrera nolako antolakuntza behar dugun hausnartu behar dugu elkarrekin».

Aurreko bi urteetan greba feministak antolatu izan ditu Euskal Herriko mugimendu feministak arrakasta handiz. «Greba tresna bat da eta ez helburua. Aurtan ez antolatzeak ez du esan nahi, inondik inora, ahuldu-ta gaudenik edo indarra galdu dugunik. Borrokarako prest gaude eta kaleak hartuko ditugu», dio Olazarrek, martxoaren 8ko bezperatan. Martxoaren 8a edota azaroaren 25a bezalako ekimenak antolatu ahal izateko koordinazio puntualetik harago, feminismoaren indarra egituratzeko beharrari erantzun nahi diote feministek, bai Euskal Herrian, eta baita Tolosaldean ere.

Eta halaxe elkartu ziren martxoaren 7an, eskualdeko ehunka feminista, Anoetako plazan. Bi zutabetan



Martxoaren 8an Tolosan egindako manifestazioa. **IRATI URDALETA**

banatuta, bata Ibarra eta Alegia ingurutik, eta bestea Aiztondotik, batera iritsi ziren Anoetako plazara, eta han egin zuten ekitaldi nagusia. Txalo artean elkar agurtu ondoren, eskuak morez pintatuta feminismoa- ren ikurra margotu zuten.

Segidan, Nekane Peñagarikano kazetariak adieraz- pena irakurri zuen: «Jostea jakintza da. Geure burua formatu dezagun hortaz, hezi dezagun, eta izan zentzu kritikoa. Hariak ere behar ditugu, baina alperrik dira josten ez baldin badakigu. Hariak kenduko dizkigute, baina jakintza ez digu inork ostuko gure barrutik. Geu izan gaitezke hari. Osatu, adibidez, sa- rea orain arteko emakumeekiko gu- txiespenak, prekarietateak eta indar- keriak harrapatzeko eta itotzeko. Josi gure gaitasunak, erabakimena gure esku izan dezagun. Geuk erabaki de- zagun zer egin. Geuk aukeratu oihala,

«Hariak behar ditugu, baina alperrik da josten ez baldin bada- kigu. Hariak ken- duko dizkigute; baina jakintza ez»

TOLOSALDEKO FEMINISTAK


geuk hartu neurria eta geure gona motzerako erabili, galtza luzeak egiteko, buruko zapirako edo gobarara- ko. Jakitun gure arteko iritzi kontrajarrietan korapilatu gaitezkeela eta gure artean orratzez zulatu. Inklusibi- tate hariz josi. Kolore guztiez. Gure azala zuria da, eta beltzarana eta berdatsa eta guztiak morea. Antolatu bakoitzaren indarra eta josi elkarren ezagutzaz. Bata- sunak jantziko gaitu eta ez da ezer estaltzeko izango. Ikus gaitzaten baizik. Adinak adin, aurrean, parean, gaudela ikusarazteko. Pentsiodunaren esperientzia eta aldarrikapena, aintzat hartu gabeko zaintzailea- ren indar amaigabea, feminizatutako lanaren preka- rietatea... Ipurtagirian zer utzia badaukagu. Lana ba- daukagu. Aldarrikapenez, bazterrak josi behar ditu- gu. Josi eta josi. Has gaitezen oraintxe bertan gure artekoa josiz eta ongi etorri ahizpak».

Hariak elkarrekin josiz sortu zuten sarearen erdian jarri zuten aurrez pintatutako ikur feminista eta *Erre zenituzten sorginen* kantua abestu zuten elkarrekin, irrintzi artean eta Batumorek lagunduta. Eguna boro- biltzeko jolas-dinamikoak egin zituzten, eskualdeko emakumeen arteko ezagutzan sakontzeko, eta guz- tiek batera elkarrekin afaldu zuten jarraian.

Hurrengo egunean, Martxoaren 8an, herriz herri, elkarretaratze eta mani- festazioak egin ziren. Beste behin, Tolosaldea morez jantzi zen.

A25, berriro ere morez

«Indarkeria matxistari ez!». Ozen oihukatu zuten azaroaren 22an Tolo- sako eta Ibarako Asanblada Femi- nistako kideek Uzturre mendiaren puntan. Hantxe elkartu ziren, pande- mia garaian, indarkeria matxisten ka- suak gora doazen bitartean. Talde bakoitza bere herritik abiatu zen Uz-



turre aldera, eta puntan egin zuten topo, bertan ekitaldi nagusia egiteko.

«Pandemiaren erdian Uzturreko puntan elkartu gara feministok indarkeria matxistari ozen EZ esateko! Gure mugikortasuna, harremanak, antolaketa mugatu zaizkigun honetan, mendiak ematen digun askatasun eremua probestu nahi dugu elkarren arteko energiaz bete eta zokoratu nahi gaituen sistema honen aurrean zutitzeko», esan zuten.

Ondoren, Indarkeria Matxistaren Aurkako Egunean, azaroaren 25ean, ehunka herritar atera ziren kalera, emakumeenganako indarkeria gaitzestera. Herri ezberdinetako eragileek antolatuta, era guztietako ekin-tzak eraman ziren aurrera.

Tolosaldea izatetik, Tolosa izatera

Eskualdeko herri batzuetan talde feminista ugari sortu dituztela jakitun, Tolosaldeko Asanblada Feminista, Tolosako Asanblada Feminista izatera igaro da. Lau urte inguru dira Tolosaldeko Asanblada Feminista sortu zela. Orduan, taldeko kideek, «oso beharrezkoa» ikusten zuten eskualde mailako emakume femi-

nistak elkartuko ziren gune eta antolakunde bat izatea. «Urte hartan sortu zen lehen greba feminista, eta garai hartan hasi ginen, halaber, Tolosaldeko Emakumeen Etxearen eskariari forma ematen. Hasiera-hasieratik oso beharrezkoa ikusi dugu eskualde mailakoa izatea, kokapena Tolosan izan arren», diote asanbladako kideek.

Azken urte hauetan, eskualdean gauzak asko aldatu direla azaldu dute. Izan ere, talde feminista ugari sortu dira eskualdeko zenbait herritan, besteak beste, Villabonan, Ibarra, Anoetan edota Altzon. «Horrek, gure taldearen izena birpentsatzera eraman gaitu. Tolosaldeko Asanblada Feminista eskualdeko emakume feminista askoren topagune eta erreferente izan da urte hauetan, eta oso pozgarria da hori. Arrazoi ezberdinak tarteko, ordea, herrietako antolakuntzak nagusitu dira, eta beharrezkoa ikusi dugu Tolosak ere bere taldea izatea. Ondorioz, eta gure ekintzen eremu nagusia Tolosa bera dela kontuan izanik, bertako asanblada izatera igaroko gara». Hala ere, ez dizkiete inori ateak itxi nahi. «Orain arte bezala, Tolosaz kanpoko emakume orok ere lekua du gurean».

Eraso matxisten aurrean autodefentsa feminista

Urte honetan eskualdean izan diren eraso matxista oro gaitzetsi dituzte asanblada feministek; eta salaketaren berri izan dutenetan kalera atera dira herritarrak, «ahalduntzeko eta autodefentsarako»

Datuek argi diote pandemia garaian indarkeria matxistak gora egin duela, «hain zuzen, epidemiaren aurrean gobernuek emandako erantzunek, lehendik martxan zeuden mekanismoak areagotzea ekarri duelako». Horrela adierazi zuten Tolosa eta Ibarako Asanblada Feministek, Indarkeria Matxistaren Aurkako Egunean. Eta azken urte honetan ere eskualdean gertatu dira indarkeria matxista kasuak, eta atera dira berriro ere kalera herritarrak, erasorik onartuko ez dutela onartzeko.

Urtea hastearekin batera egin zen elkarretaratze bat Tolosan, 2019ko abenduaren 24ko gauean eraso matxista bat izan zelako Larramendi auzoan: 19 urteko emakume bat bortxatzen saiatu ziren. Horren aurrean, Tolosaldeko Asanblada Feministak elkarretaratzea deitu zuen urtarilaren 4an. Jendetza elkartu zen biktimari babesa ematera Euskal Herria plazara, eta argi adierazi zuten: «Saretzeko, indarrak batzeko, ahalduntzeko eta autodefentsarako elkartu gara, eta elkartuko gara».

Baita Zizurkil eta Anoetan ere

Apirilean, Ertzaintzaren parte hartzea eskatu zuen kasu baten berri izan zuen Zizurkilgo Udalak. Eraso matxista oro irmo gaitzesten dutela esan zuten, eta gogoratu zuten indarkeria matxistaren biktimenezako arretra zerbitzua martxan dutela.

Urrian, berriz, emakume batek eraso matxista bat salatu zuen Anoetan. Horren aurrean, Matraka talde feministak elkarretaratzea deitu zuen, «eraso guztiek erantzun bat behar dutelako». Matrakako kideek,

«nazkatuta» daudela adierazi zuten: «Badakigu eraso hauek icebergaren goiko aldean daudela, baina egunero-egunero jasaten ditugu isilean pasatzen diren erasoak». Erasoei aurre egiteko, gainera, «ezinbestekotzat» jotzen dute autodefentsa feminista, baita emakumeek ez ezik, gainerako herritarren babesa ere.

Talde kriminala, Tolosan

Abenduaren 16an jakin zen emakumeak jazartzen zituen «talde kriminal» bat atzeman zuela poliziak Tolosan. Polizia Nazionalak atxilotetak egin zituen, Tolosa, Beasain eta Bergaran, emakumeen sexu esplotazioa egitea leporatuta. Polizia Nazionalak argitu zuenez, 17 esplotatutako emakume identifikatu zituen eta horien atzean «talde kriminala» zegoela jakinarazi. Emakumeak sexualki esplotatzeko helburua zuen taldea dela esan zuen poliziak eta hori dela eta zortzi atxiloteta egin zituzten Tolosa, Beasain eta Bergarako bost etxebizitzatan.



Urtarrilean Tolosan egindako elkarretaratzea. ITZEA URKIZU ANOETAN



BIGARRENGOZ EUSKARALDIA

COVID-19ak eragindako larrialdi egoeran gauzatu da aurtengo ariketa soziala; Urrats kualitatiboa eman da: norbanakoen konpromisoari eutsi zaio eta euskaraz aritzeko gune babestuak, 'arigune'-ak, sortu dira.

Azaroaren 20tik abenduaren 4ra, hamabost egunetan zehar ia 180.000 pertsona izan dira Euskaraldian parte hartu dutenak. Pandemiak eragin zuzena izan du euskararen erabilera sustatzea helburu duen ariketan, baina, hala ere, parte hartze handia izan duela azpimarratu dute antolatzaileek. Duela bi urteko Euskaraldian 225.154 pertsonak hartu zuten parte. Aurtengoan parte hartu dutenen herena ez zen lehen edizio hartan *ahobizi* edo *belarriprest* rolean aritu. Hau da, 50.000 pertsona berri gerturatu dira 2020ko Euskaraldira.

Bestalde, parte hartu dutenen artean %77k eman du ahobizi modura egin du, eta %23k belarriprest be-

zala egin dute, eta aurreko edizioan gertatu moduan, gehienak emakumezkoak izan dira, hau da, %62.

Tolosaldeari dagokionez, Galtzaundi euskara taldeak eman ditu eskualdeko datuak: «Duela bi urteko ariketaren pare gaude; 7.500 *ahobizi* eta *belarriprest* ditugu, gehienak *ahobizi*-ak. Duela bi urteko antzeko proportzioan ibili gara aurtén, hau da, %85 dira *ahobizi* eta %15 *belarriprest*». Tolosaldeko 28 herrietatik 24tan sortu ditu Galtzaundik herri batzordeak Euskaraldia antolatzeko. 2020ko Euskaraldian izena eman duten Tolosaldeko herriak dira hauek: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amasa-Villabona, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu,

Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Tolosa eta Zizurkil.

Euskararen erabilera sustatzeko bigarrenegun egin den ariketa berrikuntzekin etorri da, izan ere, *arigune*-en parte hartzea izan da aurtengoan. Era guztietako erakunde, enpresa eta elkarteetan sortzen diren euskara erabiltzeko gune babestuak izan dira *arigune*-ak. Tolosaldean 290 entitatek eman dute izena, eta 1.100 arigune baino gehiago sortu dira. Eskualdean sortu diren arigune horietan 4.200 pertsona inguruk parte hartu dutela kalkulatu dute *ahobizi* edo *be-larriprest* roletan.

Euskaraldia euskararen lurralde osorako pentsatutako ekimena da, beraz, eguneroko jardunean euskaraz bizi diren auzo, herri edo eskualdeetan ere gauzatu da 15 egunez. Tolosaldea bada euskararentzat arnagunea eta aurtengo antolatutako ariketa sozialean arreta jarri da herri euskaldunetan, euskara naturala eta ohikoa den guneetan. «Arnaguneak ez dira eremu blindatuak; aitzitik, eremu hauskorrak dira. Arnaguneetan sor litezkeen joera aldaketak detektatu eta ekidin behar dira». Euskaraldiaren bigarren edizioak balio izan du gune hauetan ere arreta jartzeko.

Gehiago, gehiagorekin, gehiagotan

Behin Euskaraldia amaituta balorazio «positiboa» egin dute parte hartzaileek. Galtzaundi euskara taldeko Imanol Artolak aurtengo edizioa «oso lasai» bizi izan dutela aipatu du, «gustura eta eroso». Tolosaldeko herrietan duela bi urte baino txapala gehiago ikusi direla aipatu du euskara elkarteak dinamizatzailerak, nahiz eta mugikortasun eta ordutegi muga batzuk izan pandemiagatik.

Aurtengo Euskaraldia «ariketa sozial masiboa» izan da, Euskaltzaleen Topaguneko lehendakari Kike Amonarrirek esandakoaren arabera. Orain, aldatutako dinamikei ahalik eta gehien eusteko deia egin dute ekimenaren bultzatzaileek. «Herri gogoia», Amonarriren hitzetan «hainbat hamarkadatan gauza harrigarriak egitera eraman gaituena», gailendu egin da berriro, eta erakutsi du Euskal Herrikoa «gizarte bizia» dela.

100 urtean lehen aldiz, kalean gehiago

Iazko hizkuntzen erabilera Tolosako kale-neurketaren emaitzak aurkeztu zituen maiatzean Galtzaundi euskara taldeak. 2019ko neurketan 3.246 elkarrizketen eta 8.647 hitzunen informazioa bildu zuten eta behatutako elkarrizketen %49,1ean euskara erabili zen. 1985. urtetik, urtero egiten da hizkuntzen erabilera kale-neurketa Tolosan eta iaz lehen aldiz euskararen presentzia kalean, gaztelaniarena (%48,5) baino handiagoa izan zen. Galtzaundiko ki-deek nabarmendu dutenez, nahiz eta neurketak egiten duela 34 urte hasi, «ebidentziak» daude esateko 100 urtean lehen aldiz gaztelera baino euskara gehiago entzun dela Tolosako kaleetan. «Tolosarren lekukotza ugari daude bilduta hainbat liburutan eta ahozko ondarea biltzen duen Ahotsak proiektuan, eta guztietan azpimarratzen da gerra aurreko urteetan eta ondorenean euskarak ia presentziak ez zuela Tolosako kaleetan».

Euskararen kale-erabilera 20 puntutan berrindartu da Tolosan azken urteetan. 1985ean, %29koa zen eta iaz, berriz, %49,1ekoa. Aipatzekoa da, 1981ean, Tolosako biztanleen %51 euskalduna zela. 2016an, berriz, %71 izatera pasa ziren. Beraz, kale-erabileran ez ezik, ezagutzan ere 20 puntu egin du gora, 35 urtetan.

Kale-erabileran adin-tarte desberdinen artean alde nabarmenak ikus daitezke. 1985etik, belaunaldien arteko euskararen kale-erabilera sailkapena erabat aldatu da. Gazteak azkenak izatetik bigarrenak izatera igaro dira. Duela 34 urte, adinean helduenak ziren kalean euskaraz gehien aritzen zirenak; orain, belaunaldi gazteenak dira euskara gehien erabiltzen dutenak. Gaur egun, haurren %70ak hitz egiten du euskaraz Tolosako kaleetan. Gazteetan %63ak, heldu-gazteetan %57ak, heldu-nagusietan %44ak, eta adinekoetan %29ak. 2019ko neurketaren datuak dira.

Kilometroen eredu berria, une berezian

Zubimusu ikastolak pandemiagatik jaia moldatu behar izan du.

Aurten ez da Kilometroak festa erraldoirik egin. Neurri batean iragarrita zegoen, Gipuzkoako Ikastolen Federazioak urteotan landu duen eredu berriaren lehen urtea zelako. Aurrerantzean jaia deszentralizatu eta ikastola guztiek elkarlanean garatu nahi dute Gipuzkoako ikastolen festa.

Erronka berriari ekiteko ardura zuen Amasa, Villabona eta Zizurkilgo Zubimusu ikastolak, baina pandemiak bete betean harrapatu eta erdi bidean geratu dira helburueta-ko asko. Hala ere, egoerari aurre egiteko gai izan direla eta ikastola «indartuta» atera dela azpimarratu dute Zu-



bimusuko arduradunek.

Urriaren 5ean Zizurkilgo Joxe Arregi plazan egin zuten Kilometroen lekuko aldaketa egiteko ekitaldi xumea. Gipuzkoako ikastola guztiek hartu dute testigua 2021lekoa antolatzeko: «Lekukoa hartuko duten ikastolek eta herriek, euskara eta euskal kultura bultzatzen jarraitzeko zeregina izango dute».

Zirtotsari buruzko ikerlana garatzen ari da Harituz

Mintzola Ahozko Lantegiak eta Kilometroak elkarteak egindako Pello Mari Otaño beka eskuratu du eskualdeko bertsozaleen elkarguneak.

Zirtoa bere horretan ikergaitzat hartzeko moduko generoa badela eta Aiztondon zirtoak bilduma bat egiteko adinako tradizioa baduela uste dute Tolosaldeko Harituz bertsozaleen elkarguneko kideek. Gainera, zirto errimatua bertsoaritzaren ikas-prozesuaren sarrera gisa balia daitekeela pentsatzen dute, eta hipotesi horrekin aurkeztu zuten urte hasieran ikerlan proposamena Pello Mari Otaño beka.

Mintzola Ahozko Lantegiak eta Kilometroak elkar- teak egin zuten beka deialdia, Zubimusu ikastolaren

eta Hernandorena kultur elkartearen babesarekin. Deialdiaren helburua Aiztondo bailarako ahozko ondarea biltzea, ikertzea eta dibulгатzea zen, eta, epai- mahaiko kideen esanetan, Harituz elkarguneko kide- ek aurkeztutako proposamenak bete-betean egiten zuen bat bekaren helburuarekin. 3.000 euroko or- dainsaria eskuratu zuen Harituzek uztailean lana urte- beteko epean garatzeko.

Aiztondoko zirto tradizioaren bilketa lanak egin eta gero, aplikazio didaktikoa prestatuko dute, Harituz- en bertso eskoletako ikasleekin probaldia egiteko.



Anoetako Udala

Zorionak eta urte berri on!



**BISITA GAITZAZU
TOLOSAN**

etxebestedental.com
943 654 601
NAFARROA ETORBIDEA 1,
20400 Tolosa



2 mó
zuretzat eta zuk
nahi duzunarentzat **99€**

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.

Christmas is mó

San Frantzisko, 23
Tel.: 943 69 84 70
TOLOSA

MULTIÓPTICAS



www.multipopticas.com

MUGARRIAK AURKITU NAHIAN

Zizurkilgo Hernandorena kultur elkarteak, udalarekin lankidetzan, herriko mugarri guztiak aurkitu, garbitu, dokumentatu eta herritarrei ezagutarazteko lana egitekoa zen 2020an zehar

Zortzi herrirekin egiten du muga Zizurkilek: Aia, Usurbil, Zubieta (Donostia), Andoain, Aduna, Villabona, Anoeta eta Asteasurkin. Hernandorena kultur elkarteak erregistrotatutako, gutxienez, 70 mugarriren berri izan du eta falta direnak aurkitu, topatutakoak garbitu eta dokumentatzen eman nahi izan ditu maiatzetik urte amaiera bitarteko hilabeteak.

Zizurkilgo kultura batzordeak, aurren, gai honen bueltan antolatua zuen Maiatza Saltsan ekimena, baina osasun larrialdiagatik bertan behera geratu zen. Hala ere, egoerak baimentzen zuen neurrian, lan honekin jarraitzeko konpromisoa agertu zuten Hernandorena elkartekoek.

Dokumentu eta artxibo zaharrak astinduz, barruan egin beharreko sator lana eta herriko mugetan barrena egiteko dagoen landa lana bereizi ditu Joxin Azkue Hernandorena kultur elkarteko kideak. «Askotan mugarriak ez dira oso errazak aurkitzen, leku zailetan egoten baitira, erreka zuloetan edo otez jositako mendi tontorretan. Lan luzea da, joan, buelta handia eman, eta askotan ezer aurkitu gabe itzuli behar izaten dugu etxera».

Udalerrri baten lur eremua noraino iristen den mugatzeko, maiz, elementu naturalak erabiltzen dira. Horrela gertatzen da, adibidez, Villabona eta Zizurkil artean Oria ibaiarekin edo Salobieta errekaarekin,



Aduna eta Zizurkil artean. Ohikoenak mugarriak izaten dira, ordea, «harri berezi eta nabarmenak, garai batean bezala, orain ere, garrantzia handia dutenak». Mugarri zaharrak aurkitu ez, betirako galduzat eman eta berriak jarri izan badira ere, orain arteko bilketan Hernandorena elkarteko kideek mota askotakoak topatu dituzte. «Mugarri zahar askok gurutze bat zizelkatuta daramate; oso ohikoa da, baita ere, mugarrien gainean muga-lerroa adieraztea eta udalerrri mugakide bakoitzaren inizialak zizelkatzea».

Behin bukatzean, elkartekoek ohitura duten bezala, argitalpen batean herritarren eskura jarriko dute informazio guztia.

Herriko historia zaintzeko eskatuz

Tolosako Kale Nagusiko 17. zenbakian kokatuta dagoen Andia dorrearen bost gargolak eta fatxadako armarria mantentzea nahi dute.

Tolosako Kale Nagusian etxebizitza bat eraitsi zuten uztailean, berri bat egiteko asmoz. Andia dorrea du ondoan botatako etxeak. Dorre hori Tolosako lehen eraikina izan daitekeela kontuan hartuta, herritar talde batek zaintzeko eskatu zuen. Hala ere, hasita zeuden etxebizitza berria eraikitzen. Jesus Mari Agirre herritarrek salatu zueenez, «korrika ari dira eraikitzen, guri inolako kasurik egin gabe».

Kale Nagusiko 17. zenbakian kokatuta dagoen

eraikina da Andia dorrea. Zenbait historialari eta idazleren iritziz, Tolosan altxatu zen lehendabiziko eraikina da, X. mendekoa. Oraindik teilatupean dituen bost gargola eta hego fatxadan duen armarria mantentzen ditu. Herritar batzuek kezka eta interesa adierazi dute. Dorre historikoa baloratzea eta zaintzea nahi dute, eta horretarako udalari proposamen bat egin zioten. «Ahal dela, ipar fatxada agerian uztea nahi genuen, edo, behintzat, teknikari talde batek aztertzea», azaldu zuen herritar taldeak

Baliarraingo historia, libururako

Mikel Prieto herrian informazioa biltzen aritu da liburua egiteko

Mikel Prieto historialaria Baliarraingo historia ikertzen ari zen pasa den urte amaieratik. Artxiboak begiratzeaz gain, etxez etxe zebilen herritarrekin hitz egin eta informazioa biltzen. Baliarraingo Udalarekin elkarlanean, guztia liburu batean jasotzekoak ziren urte amaierarako, baina pandemiak lanak bukatzea oztopatu die.

Etxe bakoitzaren gutxieneko informazioa jasoko dute liburuan. «Bertako familiak nortzuk izan diren, etxearen historia eta norbaitek egin nahi badu familiaren edo eraikuntzaren historia, honek abia-



puntu edo errekurtsio batzuk eskainiko dizkio», Prietoren hitzetan.

1.568 urtera arte atzera egin ahal izan dute, baina «lehen liburuak falta dira, eta hori kolpe handia da familiak osatzeko».

GUNEAK JARDUN POLITIKORAKO

Hainbat gazte antolakundek okupatutako guneen defentsan jardun dute 2020an; Kaxilda hutsarazi ondoren, Aiztondoko Gazte Asanbladak beste gune bat du Zizurkilen, eta Ezpalari eusten diote Tolosan

2019ko apirilean Zizurkil eta Tolosan aspal-ditik erabilera gabe zeuden bi eraikin okupatu zituzten, hurrenez hurren, Kaxilda eta Ezpala guneak sortzeko. Aurten, espazio horiei eusteko ahaleginak egin dituzte gazte eragileek, baina hala ere joan den martxoaren 6an Kaxilda gaztetxea hutsarazi zuten hamaika hilabeteko jardunaren ondoren.

Iazko abenduan Aiztondoko Gazte Asanbladako bi kide deitu zituzten epaiketara Zizurkilgo eraikinaren okupazioarekin lotuta. Handik hamar egunera jakinarazi zuten epaia: Kaxilda gaztetxearen berehalako hustea agindu zuen epaileak eta 1.100 euro inguruko isuna ezarri zien bi auzipetuei. Hiru hilera gauzatu zuten ebazpena gaztetxea desalojatuz.

Zizurkilgo Udalarekin negoziatu ondoren Aiztondoko Gazte Asanbladak beste gune bat lortu du Bulandegi bidean. «Jardun politikoa aurrera eramateko espazio bat da, eta ez gaztetxe edo langileen kontrolpeko gune finko bat, lokala ez baita gure beharretara egokitzen», esan dute asanbladako kideek. «Behin behineko» gunetzat daukate eta beraien beharretara egokitzen den espazio bat lortu arte «borrokan» jarraituko dute adierazi dute gazteek.

Iazko urrian aurkeztu zuten Tolosaldeko Gazte Frontea eta 2020. urte osoan hainbat lan ildo jorratu dituzte. Besteak beste, desjabetze arriskuan dauden eskualdeko bi gaztetxeen defentsa modu kolektibokan eramateko borrokaldia abiatuko zutela iragarri



zuten uda hasieran eta ordutik hainbat ekimen antolatu dituzte.

Besteak beste, Ezpalaren okupazioarekin lotuta auziperatu duten gazteari elkartasuna adierazteko dinamika garatu du fronteak. Abenduaren 18an deklaratu zuen Ezpalako kideak Tolosako Justizia Jaurerrian eta epaileak errugabetzat jo du. «Eskualdeko eragile askorentzat erreferentziazko espazioa da Ezpala eta gure jardun politikoa, soziala eta kulturala garatzeko beharrezkoa dugu», esan dute Tolosaldeko Gazte Fronteko kideek, epaiketaren harira.

Auzibidearen atzean gaztetxea desalojatzeko arriskua ikusten dute eta horren aurrean Ezpalaren defentsan jarri dute indarra: «Espazio baten faltan aurkitu ditzakegun ezintasunei aurre egiteko elkar lanerako gonbidapena egiten diegu eragileei».

ATZERATUTAKO HAUTESKUNDEAK

Apirilean ziren Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeak egitekoak, baina pandemiak atzeratu zituen; euskal presoek lotutako ekimenak egin dira baita aurten ere, eta eskualdeko bi preso gerturatu dituzte

Eusko Legebiltzarreko Hauteskundeak izan ziren uztailean. %43,91ko abstentzioa izan zen Tolosaldean eta alderdi nagusien artean, EH Bildu eta PSE-EEk egin zuten gora. EAJ, Elkarrekin-Podemos eta PP-Ciudadanos koalizioak behera egin zuten.

Bozka ematera joan zen herritarren ia erdiak EH Bilduren alde bozkatu zuen, hau da, %47,59ak. Horri esker, 28 herrietatik 26tan lehen indarra da koalizio abertzalea. Abaltzisketan eta Albizturren bigarren geratu zen, EAJren atzetik. Boto kopuruen atalean, duela lau urte baino 386 boto gehiago lortu zituen EH Bilduk, 9.623. PSE-EE izan zen gora egin zuen beste alderdia, 104 boto gehiagorekin. EAJk 731 galdu zituen, baina beherakada handiena Elkarrekin-Podemosek jasan zuen 1.784 boto gutxiagorekin.

Hauteskundeak ere COVID-19ak baldintzatuta egin ziren. Uztailaren 12an egin ziren, baina apirilaren 5ean ziren egitekoak. Martxoaren 11n Iñigo Urkullu lehendakariak Jaurilaritzako hauteskundeak mantentzea edo ez legalki aztertzen ari zela jakinarazi zuen, koronabirusaren agerraldiak Euskal Herrian izandako hedapena zela eta. Martxoaren 16an erabaki zuten alderdi guztiek hauteskundeak atzeratzea. Azkenean uztailean egin ziren segurtasun neurriak hartuta.

Hauteskundeen ondotik, izendapenen ordua iritsi zen, EH Bildutik Mikel Otero anoetarra eta Ibai Iriarte tolosarra izendatu zituzten legebiltzarkide, eta EAJko Bakartxo Tejeria larrauldarra aukeratu zuten, hiru-



garren aldiz jarraian, Eusko Legebiltzarreko presidente. Izendapenen artean garrantzia handia hartu zuen Jokin Bildarratz tolosarrak. Izan ere, Hezkuntza sailburu izendatu zuten. Senatari izateari utzi eta irailaren 8an hartu zuen kargua.

Presoak

Euskal presoek lotuta plazak bete dira azken urtean euren etxeratzea eskatuz Sare-ren Izan Bidea ekimenari esker. Irailean mendi tontorretatik euskal preso-en aldeko ekimena ziren egitekoak, baina eguraldia zela eta, plazetan egin zituzten elkarretaratzeak. Berririk ere izan da: Espainiako Auzitegi Nazionalak 52 urteko espetxe zigorra jarri zion Villabonako Iñigo Guridi Lasa euskal presoari, Emilio Salaberria billabonatarra Dueñastik Donostiako Martuteneko kartzelara ekarri eta hirugarren gradua eman zioten, eta Andoni Otegi Almeriako espetxetik Logroñokora lekualdatu zuten.



Zabor ugari Oria ibaian

Oria ibaira zabor ugari botatzen dela, eta Tolosako Udalak ez dituela «hori ekiditeko neurriak hartzen ezta garbitzen ere» salatu zuen Eguzki talde ekologistak. Tolosako Armeria plazan, burdin-zubiaren inguruan, zegoen zaborrak piztu zituen alarmak. Zaborrak ibaira botatzea erabat debekatuta dagoela gogoratu zuten.

Jangeletan xahutzen denari probetxua eman nahian

Urtean, 27 tona elikagai xahutzen dira eskualdeko hamabost ikastetxetako hamahiru jangeletan; hori da hondakin organikoaren kudeaketari buruzko ikerketaren ondorioetako bat. Problematika horren inguruko analisi sakona egin zuten Tolosaldea Garatzenek sustatutako proiektuan.

Tolosako landa eremura gerturatzeko plana

Landa eremu zabal eta aberatsa du Tolosak. Horregatik, landa auzoen etorkizuna bermatu eta horiek bizirauteko azterketa egitea erabaki zuen Tolosako Udalak eta Bedaion hasiko dira. Auzotarren ekarpenak biltzen hasiak dira jada.

Kezka sortu du gaikako bilketaren bilakaerak

2020ko urtariletik urrira gaikako bilketa %7,8an murriztu da Amasa-Villabonan. Beheranzko joera hau gelditzeko herritarren hezkuntzan arreta jartzea erabaki zuen udalak. Anoetan ere kezkatuta daude; abendura bitarteko datuak aztertuko dituzte eta tasak %74tik behera jarraitzen badu, errefusa atez ate biltzera bueltatuko dira. Zizurkil-en uztailean adierazi zuten kezka. 2020ko lehen hiru hilabeteetan birziklatze tasa %70etik gorakoa zen, baina apirilean %62ra eta maiatzean %60ra jaitsi zen datua. «Kutsatzea ez da eskubidea, ingurune garbian bizitzea bai, ordea», esan zuen udalak orduan. Egoera ikusita hezitzaile bat kontratatu dute hondakinen kudeaketa onaren inguruko kontzientziazio lana egiteko eta herritarren iradokizunak jasotzeko.



ESTETIKA TRATAMENDU AUKERA ZABALA

Ordutegia

Astelehena eta larunbata 09:00 -13:00

Asteartetik ostiralera 09:00 -13:00 eta 15:30 -19:30

Argibide gehiagorako deitu edo zatoz!

Nafarroa etorbidea 1, behea
943 968 993



Tolosaldea
Lanbide Heziketa Institutua

Santa Luzia 17 - Tolosa
943 65 11 47
www.tolosaldea.com

@tolosaldea
 @TolosaldeaLH
 @TolosaldeaLH
 @Tolosaldealhii



Goi eta erdi mailako hezkuntza zikloak - D eredua -

Etengabeko prestakuntza + Lanerako prestakuntza

Lan etorkizunerako lehen urratsak

Gabon zoriontsuak eta eskerrak
ondoan izan zareten bezeroei



IRIARTE
JATETXEA

Pedro Maria Otaño plaza, 1 ZIZURKIL • 943 692 537



Haizete ikaragarria

Urriaren 20a ondo gogoan izango dute orendaindarrek. Haize bolada bortitzak egon ziren eta kalte ugari eragin zituen eskualdean. Orendainen izan zen gertakariarik larriena, haizeak kultur etxeko teilatua eraman baitzuen. 400 bat mila euroko kolpea jaso zuen herriak, eta egoera bideratu nahian dabilta.




Argitu da misterioa

Aranzadi Zientzia Elkarteak Altzoko Handiaren hezurak topatu zituen abuztuan Altzoko hilerrian. Hezurtegian bilatu zituzten eta 64 zentimetro inguru neurtzen dituen femurra izan zen aurkitutako lehen hezurra. Eleizegi bere jaioterriko hilerrian lurperatu zutela frogatu da, eta bere hezurak bertan egon direla gaur arte.



Zirkuolari ongietorria

Uztailean egin zuten Asvinenearen agur festa, baina, proiektua ez zen hor geratu, kokapena eta izena aldatuta, lanean ari baitira berriro. Zirkuola jarri zioten izena zirku eta arte eszenikoak euskaraz sustatzen dituen lantegiari, eta Asvinenea zena-ren parean dago. Urrian hasi ziren euren eskaintzarekin.



Aitortza, Longaroni

laz zendu zen Jose Luis Longaron artista tolosarraren bizi osoko lanen erakusketa zabala bisitatu ahal izan da Tolosako Aranburu Jauregian. Artistaren hainbat obra bildu zituzten Aranburuko bi solairutan banatuta eta katalogo bat ere osatu zuten, zenbait lagunek idatzitako testuekin, guztiak ere Longaroni eskainiak.



Txokolatearen museoa

Rafa Gorrotxategi tolosar gozogileak, ametsak egia bihurtuz, Tolosaren eta Euskal Herriaren historiaren zati den Txokolatearen Museoa ireki zuen abuztuan Tolosan. Ilusioz eginiko familiaren zati bat ikusgai jarri du, museo bilakatuz. «Kakaoa eta txokolatea oso garrantzitsuak izan dira Euskal Herriaren hazkundean eta garapenean».



Otaño, zinemara

Urriaren 8an aurkeztu zuen Patxi Bisquertek (1952, Zizurkil) *Ombuaren itzala* proiektua. Pello Mari Otaño bertsolariaren inguruko film luzea egin asmo du auzolanean, eta, horretarako, hamar euroan 30.000 sarrera saltzea izan du helburu. Gidoiaren egokitzapena Bisquertek egin du Koldo Izagirreren testuetan oinarrituta.



Pentsionisten bilkurak

Pentsionistek elkarretaratzeak egin dituzte urte honetan zehar Tolosan eta Amasa-Villabonan, eta horrekin batera eskualde mailako manifestazioa ere egin zuten. Itxialdi garaian eten zituzten elkarretaratzeak. «Gizartea igarotzen ari den uneak oso larriak izan arren, guk lehengo arazo berdinekin jarraitzen dugu», esan zuten.



Sahararekin kezkatuta

Mendebaldeko Saharako su-etena apurto zen azaroan eta egoerarekin kezkatuta elkarretaratzeak eta manifestazioak egin dira eskualdean. COVID-19a dela eta aurretik ez da Saharako haurrik etorri Tolosaldera, Oporrak Bakean ekimena ez baita egin, eta aurretik ekimenean parte hartu duten familiek kezka azaldu dute.

ABENDUAK 16|17|18

URTE AMAIERAKO STOCK LIKIDAZIOA

GRUPO CARZA



CARZA
OCASIÓN



Jeep



ZURE NEURRIKO FINANTZIAZIOA



DESKONTUAK
ARTE

9.000€



IÑAUSTI POLIGONOA, 21 - OLABERRIA
LINTZIRIN POLIGONOA N-1, KM 470 - OIARTZUN

Hemen *eta* online

iragarki
laburrak
.eus





BLAK TXAPELDUN

Urte garrantzitsua izan da Lizartzako Erik Jaka eta Amezketa Jokin Altunarentzat. Bi final izan dituzte aste gutxiren bueltan; buruz burukoa lehenengo eta lau eta erdikoa gero. Eta txapelak ondo banatu dituzte; Erik Jakak jantzi zuen lehena eta Jokin Altunak bigarrena.

Buruz buruko finala izan zen lehenengo. Arazo fisikoekin amaitu arren, gehiago asmatu ondoren irabazi zuen Erik Jakak finala, Jokin Altunari 22-20 irabazita, eta horrela heldu zen lehen txapela lizartzarrarentzat.

Oso erasokor hasi zen lizartzarra, erabat agintzen eta hortik aurrera ere bikain aritu zen. Neke handiarekin amaitu zuten partida biek, Jakak, gainera, arazo fisikoekin, herrenka bukatu baitzuen. Hala ere, berarentzat 22. tantoa: 22-20. Guztiz sinesten ez zuela iritsi zen lizartzarren omenaldira, partida eta hurrengo egunean, eta etxetik herriko plazara jaitsi, eta parez pare topatu zituen herritarren eta eskolako haurren zorion mezu nahiz oihiak. Argi zuen txapelak norabidea aldatu diola: «Egia da aurrerantzean erabat ezberdina izango dela pilota munduan nuen nire panorama. Orain arte, bigarren plano batean aritu naiz; mediatikoagoak izan diren pilotari gehiago izan dira».

Lau eta erdiko finala iritsi zen gero, eta txapela Amezketa lekualdatu. Izaera lehiakorarekin kanxaratu, aurkaria aise menderatu, eta erakustaldi handia eskaini ondoren lortu zuen garaipena Altuna III.ak. Lau eta Erdiko Txapelketako txapeldun berriak, 22 eta 9 irabazi zion Erik Jakari. Lehen tantotik amaierara arte, erasokor eta eraginkorra izatea zen Jakaren asmoa. Baina ez zen horrela izan, ez baitzuen bere jokoa egitea lortu. Deseroso egon zen final guztian zehar lizartzarra. «Pozik nago, hemen egotea ez da gutxi eta. Meritu ikaragarria du Jokinek, eta nik ez dut batere asmatu partidako une askotan», adierazi zuen partida amaituta. Gustura azaldu zen ordea, pilotari amezketarra prentsaren aurrean, txapela jantzita eta garaikurrarekin. Bere bigarren txapela zen Lau eta Erdiko Txapelketan. Hasieran erritmo handiko tantoak izan direla esan zuen Altunak: «Berak egin dizkit tanto batzuk, Erikek sekulako konfiantza duelako gaur egun. Ikusi da hasieratik hil edo bizi jokatzera atera dela».

Herritarrek bi pilotariekin bat egin zuten eta Lizartzan, esaterako, bi final handietan jarri zuten pantaila handia herriko frontoian. Eta partidetara joan aurretik ere, agurra egiteko gerturatu ziren herritarrek pilotarien etxe inguruetara.



BAIKOKO PILOTARIEN GREBAK MARKATUTAKO URTEA

Baikoko hamabost pilotarik iraila amaieran grebari ekin zioten beraien lan baldintzak hobetzeko helburuarekin. Egoera jasangaitza zela esan zuten, eta enpresak langileak kaleratzeko mehatxuak egin zizkiela. Lan baldintza duinak, errespetua eta gardentasuna eskatu zituzten. Tartean ziren eskualdeko lau pilotari: **Iñaki Artola, Jon Ander Peña, Jon Erasun eta Beñat Urretabizkaia**. Hasieran hiru asteko lanuztera deitu zuten, baina lan gatazka konpontzen ez bazen prest zeuden luzatzeko, eta luzatu egin zuten. Beste hogei egunez luzatu zuten greba, azaroaren amaiera arte. Baina negoziazioek lehenago eman zuten fruitua. Baiko enpresako pilotariek akordioa lotu zuten urri amaieran EPELekin eta EPEL osatzen duten enpresekin, hau da, Baiko eta Asperekin. ELA sindikatua aritu zen 15 pilotariekin negoziazio lanak egiten eta pilotariak zoriondu zituen «egin duten borrokagatik».

Udako txapelketen ordainetan jokatu da Caixabank Mastersa, eta **Iñaki Artola** alegiarrak eta Beñat Rezus-tak irabazi dute, finalean **Jokin Altuna** amezketarrari eta Ander Imazi 9-22 irabazita. Horrelako lorpen bat iristen denean, Artolari burura etortzen zaiona aurretik egindako lan guztia da: «Oso serio hartu nuen txapelketa, ilusioa egiten zidalako, eta atzetik egiten den eta ikusten den lan horren sari moduko bat da».

Urrian egin zuen **Iker Elizegi** asteasuarrak debuta profesionaletan, Baiko enpresarekin. Herriko Usarrabi frontoian izan zen debuteko partida.

Eneko Maiz, Trinketeko Ipar Euskal Herriko finalean

Trinketeko Iparraldeko nagusien 1. mailako buruz buruko finala jokatu zuen **Eneko Maiz** billabonatarak. 40-34 galdu zuen Mickael Massonderen aurka. Maizi sorbalda atera zitzaion partida jokatzen ari zela. Txapelketako finalaurrekoak martxoan jokatu behar zituzten, baina COVID-19 zela eta, atzeratu egin ziren.

Ezin izan zuten Binakako Promozio Txapelketa irabazi

Binakako Promozio Txapelketako txapelik jantzi gabe geratu ziren **Jon Ander Peña** tolosarra eta **Jon Erasun** zizurkildarra. Partida gogorra jokatu ostean, 22-20 galdu zuten Iruñeko Labrit pilotalekuan, Asier Agirre eta Josu Eskiroz bikotearen kontra. Partida gogorra izan zen, 719 pilotadaka joz.

Hiru gaztek gidatuko dute Zazpi Iturri pilota elkarteak

Amezketako Zazpi Iturri pilota elkarteak etapa berri bati ekin dio, arduradun berriak baititu; Xal-ton Zabalak urtetan egindako lanari jarraipena eman nahi diote gidari izango diren Beñat Beloki bedaiotarrak, Ibai Amundarain amezketarrak eta Jokin Altuna pilotari profesional amezketarrak. Orain 45 urte sortu zen elkarteak, Zabalaren eskutik.

Hitzarmena sinatu du Patxi Zeberio erremontistak

Nafarroako enpresa berri batekin hitzarmena sinatu zuen **Patxi Zeberio** elduaindarrak abendura arte, beste urtebetez luzatzeko aukerarekin. «Koronabirusaren garai honetan bazirudien bukaera iritsiko zela», esan zuen.



ZAILA DU IRAITZ ARROSPIDEK TOKIORA JOATEKO AUKERA

Iraitz Arrospide maratoilari billabonatarri Tokioko Olinpiar Jokoetara joateko aukerak maldan gora jarri zaizkio. Urtebetez atzeratu dira jokoak, eta 2021ean egitea aurreikusten dute.

Horrek, nolabait, aukerak zabaltzen zizkion Arrospideri, aurten izan balira, oso zaila baitzuen Espainiako selekzioak hautatzea, bere aurretik beste atleta batzuk baitzituen. Hori bai, gutxieneko marka lortu zuen. Marka hobetu eta aukera berritzeko asmoa zuen abenduan jokatuak Valentziako maratoian, baina ezin izan zuen proba amaitu. Urteko bere proba nagusia zen, baina ezin izan zituen bere helburuak lortu.

Bestalde, Arrospidek goi mailan jarraitzen duela erakutsi du aurten ere, maratoi erdiko Munduko Txapelketan parte hartu baitzuen Espainiako selekzioarekin. Modu horretan, hirugarren urtez jarraian nazioarteko proba batean parte hartu ahal izan du atleta billabonatarrak. Polonian jokatuak proban 84. amaitu zuen.

Maria Felisa Okomo, Espainiako txapeldun

Tolosa CF-ko atletek emaitza aipagarriak lortu dituzte, eta bereziki nabarmentzekoak dira aire libreko Espainiako txapelketetan lortutakoak. **Maria Felisa Okomo** 20 urte azpikoetan txapelduna izan da pisu jaurtiketan. Maila berean **Ander Uranga** bigarren izan da 200 metrotan. **Mikel Ezkerrok** 18 urte azpiko mailan lortu du zilarrezko domina 110 metro hesietan. 16 urte azpikoetan bi brontzezko domina lortu dituzte klubeko atletek: **June Sudupek** 600 metrotan eta **Manex Civicok** 3.000 metrotan. Bestalde, pista estalian **Sergio Romanek** Espainiako Txapelketa irabazi du 3.000 metrotan, M-40 mailan.

IMANOL ROJOK EUROPAKO KOPAKO PROBA BAT IRABAZI DU LEHEN ALDIZ

Imanol Rojo iraupen eskiatzaile tolosarrak Italian lortu du lehen aldiz Europako Kopako proba bat irabaztea. Formazzan izan da, 15 kilometro klasiko eran. 2020-2021 denboraldiaren hasieran izan da. Otsaila bukaeran eta martxoa hasieran izango du denboraldiko proba nagusia, Munduko Txapelketa, eta bertan orain arte lortutako emaitzak hobetzea da bere asmoa. Aurreko denboraldian, 2019-2020an, orain arteko emaitzarik onena lortu zuen Munduko Kopako proba batean, Txekiako Nove Meston urtarrilean jokatuak proban 26. amaituz.

EUKENE LARRARTE, EUROPAKO ONENEKIN LEHIAN

Txirrindularitzan **Eukene Larrarte** tolosarrak pistako Europako Txapelketan parte hartu du elite mailan, eta omnium proban sailkapen orokorrean bederatzigarren amaitu du. 23 urtez azpiko Europako Txapelketan ere parte hartu du, omnium eta scratch probetan laugarren, madisonen zazpigarren eta puntuazioan zortzigarren eginez. Horrez gain, txirrindulari tolosarrak errepideko Europako Txapelketan parte hartu du 23 urtez azpiko mailan.

Unai Iribar ibartarrak afizionatu mailan urte oparoa izan du: Lehendakari torneoa irabazi du, Euskaldun torneoan bigarren egin du, Segurako San Juan Saria irabazi du, eta beste lau probatan podiumean sartu da. Horrez gain, Balentziagaren Oroimenezkoan, Espainiako Kopako proba garrantzitsuenean, seigarren egin du.

Juanjo Esnaola enduro mendi bizikletako txirrindulari anoetarra Espainiako txapelduna izan da M30 mailan, eta sailkapen orokorrean hamaikagarrena.

Trialsinean ez da aurten nazioarteko probarik antolatatu eta, beraz, **Irene Caminos** tolosarrak bakarrik Espainiako Txapelketan eta Kopan parte hartu ahal izan du. Bi lehiaketetan bigarren postua eskuratu du.



IBARRA SOKATIRA TALDEKO GIZONEZKOAK, HIRUGARREN MUNDUKO TXAPELKETAN

Herri kiroleetan sokatiratik hasi beharra dago. Ibarra Sokatira Taldeko gizonezkoek Euskal Herriko Txapelketa irabazi ostean, Irlandan egindako Munduko Txapelketan parte hartu zuten eta brontzezko domina lortu zuten 560 kilotan. Emakumezko taldeak, bere aldetik, omenaldia jaso du Lilatoia lasterketaren partetik, herri kirolean aritzen diren emakumezkoen ordezkari gisa.

Euskal pentatloiari dagokionez, aurten lehenengo aldiz egin da Binakako Euskal Pentatloi Txapelketa. Tolosan jokatu zen eta Ibarran bizi den **Xabier Orbegozo Arria V.a**-k eta Andoni Iruretagoiena *Izeta VI.a*-k irabazi zuten. Eskualdeko bi ordezkari izan ziren III. Euskal Pentatloi Txapelketaren finalean: **Arria V.a**-k hirugarren amaitu zuen eta **Iñaki Errazkin** tolosarrak bosgarren.

Aizkoran mugimendu handia izan da, lehen mailako aizkolarari guztiek eta bigarren mailako zortzik Euskal Herriko Herri Kirolen Federazioaren lana kritikatzearrekin batera, euren txapelketa antolatu baitute. Aizkolarari Txapelketa Nagusian, lehen mailakoan, **Jon Irazu** zizurkildarrak eta **Jexux Mari Mujika** ibartarrak parte hartu dute. Irazu finalera pasa da eta laugarren postuan amaitu du.

Bestalde, segan Euskal Liga jokatu da aurten, eta emakumezkoetan lehen bi postuak, hurrenez hurren, **Ainara Otamendi** ibartarrak eta **Alaitz Imaz** hernialdetarrak lortu dituzte.



TOLOSALDEA, ETE LIGAKO IRABAZLE ETA KONTXAKO OHOREZKO TXANDAN

Tolosaldeak traineruak ETE liga irabazi du hamabi banderatatik bederatzi irabazita, tartean, I. Tolosaldeko Ikurrina. Eusko Tren Ligara igotzeko lehian, ordea, ez da nahi bezala aritu eta ez dute lortu igoera. Kontxako Banderan, berriz, lehendabiziko aldiz ohorezko txandan sartu dira, azkenean laugarren amaituz.

Ohiane Iraola tolosarrak Orio traineruarekin bigarren Kontxako Bandera irabazi du eta baita Eusko Tren liga ere. **Jon Lizarralde** tolosarrak hirugarren Kontxako Bandera irabazi du jarraian Hondarribiarekin, eta laugarrena orotara, 2013koarekin.

JON KEPA KORTAJARENA, ESPAINIAKOAN IRABAZLE

Danok Danena taldeko pultsulariek maila ona eman dute beste behin. Espainiako Txapelketan **Jon Kepa Kortajarenak** lortu du emaitzarik aipagarriena, lehen postua eskuratuz 17 urtez azpiko 55 kiloko mailan. Gainera, Munduko Kopan ere parte hartu du, Internet bidez gauzatutakoa, hamargarren eginez. Espainiako Txapelketan, seniorretan, **Ekaitz Kortajarenak** bigarren postua lortu du 61 kilotan eta **Mikel Alvarez** hirugarren izan da 73 kilotan.

Pisuak altxatzeko beste modalitate batean, pisu hila, Xthor Powerbuilding taldeko **Jon Malbadi** tolosarrak Espainiako marka ezarri du 370 kilo altxatuz.

Mendi lasterketa gutxi, emaitza nabarmenak

Mendi lasterketa gutxiago egin dira aurten, baina **Iñaki Olano** altzotarrak hiru irabazi ditu: UZ Trail, Berastegiko III. Negu Trail eta Garingo Mendi Lasterketa. Horrez gain, bigarren egin zuen Ordiziako Mendi Maratoi Erdian. Olano eta **Sarah Ugarte** tolosarra euskal selekzioan sartu dira. **Iban Agirreza-bala** berastegiarrak bigarren egin du Canfranc-Canfranc ultra trailean. Bestalde, **Iker Karrera** amezketarraren ibilbidea jasotzen duen *Bidea ipar* liburua, **Unai Ugartemendiarekin** idatzia, argitaratu da.

Julen Lopetegui, Europa League-ko irabazle

Futbolari dagokionez, **Julen Lopetegui** entrena-tzaile asteasuarra Europa League irabazi du Sevillarekin. **Nerea Eizagirre** tolosarrak 100 partida bete ditu Realarekin. **Ander Gorostidi** tolosarrak profesional mailan jokatzeko aukera izan du, La Ligako Bilarren Mailako Alcorcon taldeak fitxatu baitu. **Henar Martinez** tolosarra Tolosa CF-ko gizon-zkoen talde bat, jubenil mailako hirugarren taldea, entrenatzen duen lehen emakumezkoa bihurtu da. Eta Tolosa CF-ko gizon-zkoen lehen taldean, Hirugarren Mailakoan, entrenatzaile alda-keta izan da: **Ander Avellaneda** tolosarrak taldea utzi eta **Mikel Arruabarrena** tolosarrak hartu du bertako ardura.

Aitzol Oiarzabalek jokatzeari utzi dio

Areto futboleko, **Aitzol Oiarzabal** ibartarrak Lau-buru Ibarran jokatzeari utzi dio bertan 15 denbo-raldi egon eta gero. Taldean entrenatzaile berria dute: **Jose Julio Jota Arreguik** hartu du **Alfredo Hualderen** lekua. Bestalde, Tolosalaren lehen taldea Hirugarren Mailara igo da.

Ibon Mugerza, laugarren Munduko Txapelketan

AEBn jokaturako Munduko Txapelketan laugarren postua, eta, beraz, kobrezko domina, lortu du Ibon Mugerza surflari tolosarrak. Taldekakoan, urrezko domina lortu du Espainiako selekzioarekin. Surf egokituan lehiatzen da Mugerza, stand 1 modalita-tean.

Paula Del Pozo triatloilaria, Europako Kopan

Paula Del Pozo alegiarra lehen aldiz parte hartu du triatloiko nazioarteko proba batean. Banyolesen (Katalunia) jokaturako proban 11. helmugaratu da. Bestalde, Del Pozo Madrilen dagoen goi errendi-menduko Blume zentroan dago, bertako beka jaso eta gero.

Beñat Azaldegik utzi, Goar Artetxe entrenatzaile

Saskibaloian, Redline Mekanika TAKE taldean alda-keta nabarmenak izan dira. Aurreko denboraldian ligako jokalaririk baliotsuena izan zen **Beñat Azaldegik** tolosarrak saskibaloian jokatzeari utzi dio, eta **Goar Artetxe** anoetarra da entrenatzaile berria, **Jon Azaldegik** tolosarraren lekua hartuz.

Lau kirolari ohi hil dira

Aurten lau kirolari ohi hil dira. Horietako bat Bidan-ian jaio ondoren txikitan Markina-Xemeinera bizi-tzera joan zen **Antonio Mendizabal Arrate Mendi** puntista. **Ramon Soroa** elduaindarra 70 urte zi-tuela hil zen, Miamin; zesta puntan jokatu zuen, atzelari moduan, Miami Jai Alairen garai onenetakoan. Munduko txapelduna izatera iritsi zen **Juliana Ignacia Julita Beraza Leibar** pilotari anoetarra hil zen 94 urte zituela, Mexikon. Futbolaria izan zen **Joxe Soroa** lizartzarra 54 urterekin hil zen.



**2 eta 3 logelako etxebizitzak garaje eta trastelekuak terraza
zabal eta eguzkitsuak ikuspegi paregabeak mendietara
zatoz eta erreserbatu zure gustuko pisua!**



ANOETA – 28 ETXEBIZITZA

PANELFISA  TM
automotive eating links